

## Herririk Herri

'Zer ikusi, hura ikasi' gurasoentzako tailerragaz euskararen transmisioan eragin gura dute Berrizen > 2



## Faxismoaren kontra borrokatu zutenen omenez oroitarria jarriko dute Durangon

Durango 1936 kultur elkarteak oroitarria jarriko du Kurutziaga kalean. Gurseko kontzentrazio-esparrua hartuko dute berbagai

Durango 1936 kultur elkarteak Agurrikgabea ekitaldiaren sei garren edizioa antolatu du egunerako. Aurtan, faxismoaren kontra borrokatu zutenen omenezko oroitarria inauguratuko dute Durangoko Kurutziaga kalean. Aurretik, 20:00etan hasiko

dute ekitaldia, aurreku eta lore eskaintzagaz. Raymond Villalbak Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparruaren inguruan berba egingo du jarraian. Bere gurasoek bertan ezagutu zuten elkar, eta Durangaldeko hainbat lagun pasa ziren handik. > 4



## Sexuaz hitz egin dezagun

Sexualitateari buruzko aholkularitza eskainiko du Abadiño Udalak > 3

Inma Zapardiez Abadiño gazteria arloko zinegotzia eta Lahia-Nahia taldeko Eider Goiburu eta Ohiane Ugarteburu.



**BAQUÉ**  
Café

GASTRONOMIAREN MOTORRA  
DIREN ERAGILEEN LAGUNTZAILE  
AKTIBOAK GARA

basque  
culinary  
center

Escola Superior de Hosteleria  
Arxanda

Slow Food

SUKATALDE

C.I.P.F.P  
CAMINO DE SANTIAGO  
Escuela de hosteleria - Ostalaritza eskola  
Centro de Estudios Arguñanos - Centro de estudios de gastronomía y cocina

AIAIA

### Zaldibar > 6

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren bigarren fasea abian

### Abadiño > 3

Navarro alkateak "gizalegezkoak ez diren jokabideak" salatu ditu

### Otxandio > 6

Plaza eraberritzeko proiektua aurkeztuko dute jendaurrean

### Mallabia > 7

Izar Gorri elkarteak jaurtiko du Urriko jaietako txupinazoa

# Herririk herri

> BERRIZ

## “Eskolak baino eragin handiagoa du etxeko portaera linguistikoak”

‘Zer ikusi, hura ikasi’ gurasoentzako tailerra hasiko dute euskararen transmisioaren inguruan

> AMAIA UGALDE

Hizkuntza ohiturak, hizkuntzekiko begirunea, kultura produktuen kontsumoa... Etxean ikusitako hizkuntza portaerek duten garrantziari buruz jardungo dute *Zer ikusi, hura ikasi* tailerrean. Gurasoek euskararen transmisioaren inguruan dituzten zalantza eta dudak argitu ahalko dituzte hiru saio izango dituen tailerrean.

Berrizko Udaleko Euskara Sailak antolatuta, AEK-ko AHIZE aholkularitza zerbitzuak eskainiko du guraso tailerra. Iratxe Garmendia eta Mikel Urdangarin izango dira irakasleak.

“Ikerketek erakutsi dute eskola ereduak baino eragin handiagoa duela etxeko portaera linguistikoak”, azaldu dute irakasleek. Gurasoak horretaz jabetzen direla esan dute, “baina

laguntza nahi dute haien ohiturak aldatzeko”. “Modu atsegin eta dibertigarrian” euskararen aldeko jarrerak lantzeko tresnak, ereduak eta aukerak ikusiko dituzte ikastaroan.

“

*Hizkuntzaz gainera, hizkuntzekiko begirunea, ikasi eta hobetu nahia, edota kultura kontsumoa ere transmitu daitezke”*

**Ez da gaitasuna bakarrik**

Etxean euskara guztiz ondo menperatzen ez bada, orduan zer? Horrelako zalantzak ere iza-



Bikote eta guraso taldea, irakasleekin, duela urte biko Guraso Eskolan.

ten dituzte gurasoek. AHIZEko irakasleen berbetan, “hizkuntza gaitasuna aldagai garrantzitsua da, baina ez bakarria. Bazuetan, portaera egokiagoak izaten dituzte euskara ikasten ari direnek, euskaldun osoek baino”. Euskara berarekin batera, transmititu daitezkeen beste kontu batzuk nabarmendu dituzte: “Hizkuntzekiko begirunea, ikasi eta hobetu nahia, kultura kontsumoa...”

Euskaraz gaitasunik ez duten gurasoei, etxeko hizkuntza aberatsa irakastea gomen datzen diete Garmendiak eta Urdangarinek: “Ez da ohikoa

ama-hizkuntzan maila apala izan, eta bigarrenean altua izatea”. Guraso horiek, euskara mailarik ez izan arren, euskarari daukan garrantzia aitortu ahal diote. Beste bide batzuk daude: “D ereduari matrikulatu, eskolaz kanpoko jardueretan izena eman, udalekuak, antzerkiak ikusi, liburuak irakurri, gurasoak ere haien gaitasuna eta portaera hobetzen saiatu...”

Seme-alabak euskaldunak eta eleanitzak izateko denbora eta baliabideak eskaini behar direla azaldu dute: “Ez euskara salbatzeko, haien etorkizuna ziurtatzeko baizik”. Etorkizuna

eleanitza izango da, eta irakasleek argi diote: “Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, haurrak zoriontsuagoak izango dira”.

**Hautzaindegi zerbitzua**

Tailerra eskolako liburutegian egingo dute, eta urriaren 29an, azaroaren 12an eta azaroaren 29an izango dira saioak, 18:00etan hasita. Tailerrak irauten duen artean hautzaindegi zerbitzua egongo da.

Informazio gehiago eskatzeko Euskara Sailera deitu daiteke, 946 824 036 telefonora. Posta elektronikoz ere, [euskara@berriz.org](mailto:euskara@berriz.org) helbidera idatzi daiteke.

> DURANGALDEA

## Hiru kontainer erretzea kritikatu du Zarrabeitiak

Hiru edukiontzi erre zituzten asteburuan, Iurretan

> A.B. / M.O.

Joan zen asteburuan hiru kontainer erre zituzten Iurretan, San Andres auzoan bi eta kanposantzuaren parean bestea. Durangaldeko Amankomunazgoa da zabor bilketaren arduraduna, eta Oskar Zarrabeitiak

presidenteak esan du gertaera horiek “negargarriak” direla. Kalte ekonomikoaz hausnartu du Zarrabeitiak: “Gertaera horiek eguneroko lana kaltetzen dute, eta mankomunitate zein udaletxei kostu ekonomiko garrantzitsua eragiten diete”.



Iurretan erretako kontainerren irudiak.

## Euskararen transmisioa sustatzeko kanpaina

‘Eman giltza’ kanpaina Zaldibarren, Abadiñon, Berrizen, Durangon eta Elorrioren garatuko da

> A.B. / M.O.

Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, Alkarbidek, euskararen transmisioa sustatzeko kanpaina zabalduko du berriro. *Eman giltza* izenpean orain urte bi ipini zuten martxan ekimena, euskara belaunaldiz belaunaldi hedatzearen garrantzia jendeari azaltzeko helburuagaz. 39 herritan garatuko da oraingoan kanpaina, eta tartean daude Zaldibar, Abadiño, Berriz, Durango

Euskara sustatzeko aholkuak batzen dituen diptiko bat jasoko dute etxean gurasoek

eta Elorrio. Jaioberriak eta 1-6 adin tarteko umeak dauzkaten gurasoei zuzendutako kanpaina da, adierazi dutenez.

**Opari banaketa**

Euskara sustatzeko aholkuak batzen dituen diptiko bat jasoko dute etxean gurasoek. Gainera, beste zenbait opari ere bidaliko dizkiete. Esaterako, liburuxka batean euskarazko abestiak, testuak eta esamoldeak izango dituzte eskura. Umearen ingurunean euskaraz diren elementuen presentzia areagotzea ere bada arduradunen asmoa. Horregatik, adur-zapia, askari-poltsa eta kotxean jartzeko pegatina ere jasoko dituzte.

Bizkaia osoa kontuan hartuta, 10.000 familiarengana heldu gura dute kanpainagaz.

## Atxarte egoitzan daudenak igerilekuetara joango dira

> M.O.

Abadiñoko Atxarte egoitzan dauden ezindu pisikikoak Astolako igerilekuetara joango dira hemendik aurrera. Amankomunazgoak eta egoitzako zerbitzua kudeatzen duen Gorabide elkarteak hitzarmena sinatu dute egitasmo hori bideratzeko. 5.000 euro jasoko ditu Gorabidek, Amankomunazgoko arduradunek prentsa oharrean azaldu dutenez. Akordio hori aho batez onartu zen azkeneko osoko bilkuran.

**Norabidea, gizarteratzea**

Uretako ekintzek osasunean hobekuntzak ekartzen dituztela frogatuta dagoela esan du Oskar Zarrabeitiak Amankomunazgoko presidenteak. Kasu honi dagokionez, ezinduak gizarteratzeko ere balioko dutela uste du.

**> ABADIÑO**

# Sexualitateari buruzko aholkularitza zerbitzu berria

Herriko bi lekutan eskainiko dute Lahia-Nahia sexologia taldekoek zerbitzua



Herriko ikastetxeetan gazteekin sexologiari eta generoari buruzko gaiak lantzen lau urte darama Lahia-Nahia elkarteak.

**> ITSASO ESTEBAN**

Aholkularitza zerbitzua kudeatuko duen Lahia-Nahia taldeko Oihane Ugarteburu eta Eider Goiburuk, eta Ima Zapardiez Gazteria arloko zinegotziak aurkeztu dute ekimen berria.

Bereziki gazteei zuzenduriko informazio eta aholku zerbitzua da martxan ipiniko duten hori, eta herriko ikastetxeetan gazteekin sexologiari eta generoari buruzko gaiak lantzen lau urte daramatzen Lahia-Nahia Sexologia Elkarteak kudeatuko

du. Gazteei ezezik, guraso eta irakasleei ere zerbitzua eskaini gura diete. Zinegotziaren berbetan, "gazteek sexualitateaz dituzten zalantzak argitu, eta galderak egiteko leku bat es-

Bereziki gazteei zuzenduriko informazio eta aholku zerbitzua da martxan ipiniko dutena

kaintzea da helburua: mito falsuak alboratzen eta konfiantza hartzen lagunduko die horrek".

Hileko bigarren astelehenean Txaporta kultur etxean, eta hileko laugarrenean Traña-Matienan eskainiko dute zerbitzua, 17:30etik 19:30era. Aldez aurretik hitzordurik hartu beharrik egongo ez den arren, sare sozialetan, *AbadiñoSexAholkularitza* izenagaz, eta *sexu aholkularitza@abadiño.org* helbidean jar daitezke arduradunekin harremanetan.

## "Hutsune handia zegoen gazteen zalantza konkretuei erantzuteko"

Lahia-Nahia taldekoek zerbitzu berriaren aurkezpenaz azaldu dutenez, gazteekin Abadiñoko ikastetxeetan lau urtez izandako esperientziatik sortu da zerbitzu berria eskaintzeko ideia: "Batetik, saio horietan sexualitatea eta generoa landu arren, desinformazio handia dagoela ikusi dugu; eta bestetik, maila indibidualean, hutsune handia dago gazteen zalantza

konkretuak erantzuteko". Sexologia taldeko adituen berbetan, orain arte herriko gazteekin izandako saioetan, 11-12 urtekoek, "batez ere, aldaketa fisiologikoei eta sentimenduei buruzko galderak egin dituzte, eta 15-16-17 urtekoek, harreman koitalei zein homosexualitateari buruzko informazioa eskatzen dute, sarritan". Gazteen zalantzak argitzen lagundu, eta Txaporta

kultur etxeko eta Pino plazako sexologia aholkularitzako bulegoak herritarrentzat erreferente bilakatzea gura dute. Lahia-Nahia taldeko Eider Goiburuk azpimarratu duenez, "sexualitatearen lanketa herriko eguneroko dinamikan txertatzeak" garrantzi handia duelako, herriko eragileekin elkarlanean ariko dira.

Bestalde, gazteen arteko harremanetan antzeman dituzten jarrera sexistak eta tratatu txarren zantzuak gune horietatik desagerrarazteko ere indarra egingo dute.

# Navarro: "Txakurren jabe ardurabakoen izurrite latza bizi dugu"

"Gizalegezkoak ez diren jokabide zabarrak" kritikatu zituen alkateak joan zen asteko bandoan

**> I.E.**

"Leihotik animaliei kalera janaria botatzea, kartoi, altzari edo kaxak kontainerren inguruan, lurrean, eta behar ez den egunetan" uztea kritikatu zituen, besteak beste, Jose Luis Navarro alkateak, joan zen astean kaleratu zuen bandoaren bidez.

Kale-garbitzaileek ahalegin handia egiten dutela herria txukuntzen, baina herritarrek Abadiño garbi mantentzen asko lagun dezaketela azpimarratu du alkateak. Ohar horretan, "hamaikagarrenez" abisatzen duela adierazi du Navarro alkateak, "dena ez dela zilegi, eta ulertu behar dugula elkarrekin bizi garenez, errespetua zor diogula elkarri".

Batez ere, txakurrek sorturiko zikinkerari, eta "euren buruz bano arduratzen ez diren txakurren jabe zabar eta ardu-

rabakoei" buruz dihardu Jose Luis Navarro alkateak, herrian zabalduko idatzian.

Herrian txakur kopurua asko hazi dela, eta horregaz batera, "lotu barik doazen txakurren eta kale eta lorategietan jaso barik uzten diren txakur gorrotzen" kopuruak ere gora egin duela kritikatu du alkateak: "Ez dute txakurra paseatzera aterratzen, kaka egitera baino, eta gorotzak lurrean uzten dituzte, lorezain edo herritar bat eurkin lorrindu dadin".

"Euren buruz bano arduratzen ez diren txakurren jabe zabar eta ardurabakoei" buruz dihardu alkateak

**> GARAI**

# Lodosa ezagutzera joango dira nagusiak

Nagusien elkartearen irteera astelehenean da

**> MARKEL ONAINDIA**

Garaiko nagusien elkarteak Lodosara irteera antolatu du datorren astelehenerako, hilaren 21erako. Nafarroako herria ezagutzeko aukera izango dute, ingurunea ikusi eta bertako gastronomia dastatzeko.

Goizeko 09:00etan irtengo dute Garaitik. Lodosara ailegatzean, XVI. mendeko eliza bisitatuko dute, eta horren ostean pikillo piperrari eskainitako monumentua ere bai. Lodosan osteratxoa egin eta gero, inguruko herrietan egingo dute

dastaketa gastronomikoa. Carcar herrian dagoen Valdelares upategian ardoa probatu ahal izango dute.

Bazkaltzera Azagra herrira joango dira, eta lurralde hartako produktuak jango dituzte: pikillo piperrak, txerri-ukondoa... 14:30ean hartu dute ordua mahaian esertzeko.

Irteeran apuntatu gura duenak 23 euro ordaindu beharko dituela azaldu dute antolatzaileek. Izena emateko azken eguna biharkoa izango dela ere ohartarazi dute.

R.P.S.: 214/06

**A. Urreta** podólogo

**Alnara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMO SERBANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO

Tel./Faxa: 946 215 404

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango

Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577

posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**Arrike** liburutegia

Kalebarria z/g - Durango

Tel.: 946 201 893

Faxe: 946 816 403

**> DURANGO**

Erreka jaitsiera egin zuten hainbat lagunek joan zen domekan, Txosna Batzordeak deituta. Berbaro

## Disfraz Eguna, Patxikotxu eta Pantxike agurtu aurretik

Txosnetako zarata mugatzaileen inguruan sortutako polemika baretu egin da

**> MARKEL ONAINDIA**

Jaietako bigarren asteburuari ekingo diote gaur durangarrek. Domeka iluntzean Patxikotxu eta Pantxikeri agur esan aurretik, baina, makina bat ekitalditan parte hartzeko aukera edukiko dute. Gainera, egun berezia izango da biharkoa: Disfraz Eguna. Eta aurten nobedade batez dator. Arratsaldeko 18:30ean desfilea egingo da kuadrillak, Madalenatik Andra Mariara.

Eguerdian ere egongo da umeen desfilea. Txosna Batzordeak, bere aldetik, jostailu jantzita ateratzeko deia egin du. Horrez gainera, Elkartasun Eguna ospatuko dute, bihar, Txosnagunean. Domekan falkoneria erakustaldia egongo da DAZen eskutik.

**Zarata mugatzaileak**

Joan zen astean txosnetako zarata mugatzaileen inguruan sortutako polemika baretu egin

da. Gainera, mugatzaileek ondo funtzionatu dutela adierazi du Pilar Rios zinegotziak (PSE-EE). Aitziber Irigoras alkateari giroa "kakaztu" gura izatea egotzi dio. Bildu eta Aralarren ustez, "agerian geratu da berriro ere, EAJk ez dituela gogoko jai herrikoiak". Esan dute txosnen proposamena aho batez onartu zela batzordean, eta gero EAJk aldatu gura izan zuela. "Polemika sortu du, ez zegoen lekuan".

## Greba batean parte hartzeagatik sei lagun epaitu dituzte

Iazko martxoko grebaren harira izan da epaiketa

**> M.O.**

"Grebarako dugun eskubidea kriminalizatu nahi dute". Berba horiek erabili ditu LABek atzo Durangon sei grebalariri egindako epaiketa kritikatzeko. Durangaldekoak eta Arratia-koak dira. Iaz, martxoaren 29an egindako greba orokorraren harira epaitu dituzte. "Ez da pertsona batzuek egin zuten zer edo zer epaitzeko saioa. Gu guztiok epaitu gaituzte". LABen ustez, langile mugimendua kriminalizatzeko nolabaiteko saiakera

ari da gertatzen azken urteetan. Sindikatuak ohartarazi du atzokoa ez dela Euskal Herrian jazo den epaiketa bakarra.

LABen ustez, instituzioek eta patronalak zigor bikoitza ezartzen diete beharginei: "Arau kolektiboaren bidez denon eskubideak zapaltzen dituzte, eta bestalde, inposatutakoaren aurka protestatzen duenari zigor indibiduala ezartzen diote".

Horrelako "muntaiak" amaitzea, eta greba eskubidea errespetatzea eskatu du LABek.



Hainbat lagun epaitegi aurrean, atzoko kontzentrazioan.

## Osasungitzan euskarak duen egoera berba Plateruenean

**> JONE GUENETXEA**

Osasungitzan euskarak bizi duen egoeraren inguruan berba egiteko Aitor Montes Aramaioko familia-medikua, eta Osakidetza Guztiona taldeko Lorea Ureta eta Igor Estarellas batuko dira, datorren eguaztean, urriaren 23an, 20:00etan, Plateruena Kafe Antzokian. Aurkezlea Aitor Sarrionandia izango da. EH Bilduk antolatutako hitzaldian, hizlariak osasun sistema publikoan euskararen errealitatea eta egoera zein den hartuko dute berba. Gainera, euskararen egoera hobetzeko hainbat proposamen azalduko dituztela adierazi dute antolatzaileek: "Bakoitzak euskara ar-

Hizlariak Aitor Montes Aramaioko familia-medikua, Lorea Ureta eta Igor Estarellas izango dira

loan osasun sistema publikoan duen ikuspuntua plazaratuko du eztabaidari bide emateko eta bertaratzen diren herritarrekin partekatuko".

## Faxismoaren kontrako borrokalarien omenez oroitarria ipiniko dute

Durango 1936 kultur elkarteak 'Agurrik gabeak' ekitaldia antolatu du datorren egunerako

**> M.O.**

Durango 1936 kultur elkartearen ekimenez, faxismoaren kontra borrokatu zirenen omenezko oroitarria ipiniko dute Kurutziaga kalean. Datorren egunean izango da inaugurazioa, *Agurrik gabeak* ekitaldiaren harira. Elkarteak urtero antolatzen du ekitaldi hori, faxismoaren biktimak gogoan hartu eta gai horretan sakontzeko asmoz. Aurtengoa seigarren edizioa izango da. Oroitarria elkartearen hasierako helburuetako bat izan dela esan du Maria Gonzalezek: "1936ko Estatu-kolpearen aurrean gure askatasuna defendatu zutenak Durango-

Raymond Villalbak Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparruaz berba egingo du

ko leku publikoan gogoratzeari ezinbesteko deritzogu".

20:00etan hasiko da ekitaldia, aureskua eta lore eskaintza-gaz. Horren ostean inauguratuko dute Debako Arte Eskolako kideek landutako oroitarria.

Raymond Villalbak Gurseko (Frantzia) kontzentrazio-esparruaz berba egingo du jarraian. Bere gurasoek bertan ezagutu zuten elkar, eta hortik datorkio lotura. Gaiaren harira sortutako elkarte bateko presidentea ere bada. Durangaldeko hainbat herritar egon ziren Gursen. Besteak beste, Pedro Agirre Zubizarreta (EAJ), Koldobika Irigoras Aranburu (EAJ), Jose Arana Belategi (ELA/STV), Bernabe Azurmendi Arremalde (PSOE), Javier Gomez Villanueva (UGT), Lorenzo Gaztelumendi Bilbao (PCE) eta Jose María Larrinaga Astarloa (CNT).

Karrika antzerki taldearen *Izarrak marrazten* ikuskizunagaz amaituko dute ekitaldia.

**> MAÑARIA**

## 130 dantzari batuko dira etzi Euskal Jaian

Durangaldeko zazpi dantza talde egongo dira

**> M.O.**

130 ume egingo dute dantzan domekan Euskal Jaian. Durangaldeko zazpi dantza taldek parte hartuko dute: Mañaria, Elorrio eta Atxondotik bana, eta Abadiño eta Durangotik bina erango dituzte. Mañariko Andra Mari elkarteak antolatzen du jai urte birik behin.

12:00etan hasiko da jai, kale-jiragaz. 13:00etan, umeak batuko dituzte eta etxeetara bazkaltzera

**> IZURTZA**

## Gazta eta Ardo Azokak hirugarren urtea beteko du aurten

**> J.D.**

Aurreko urte bietan udalak plaza inguruan eta pilotalekuan antolatutako Gazta eta Ardo Azokak izan duen harreragaz oso pozik daude udal ardura-

eroan. Usadio bihurtu da hori: herritarrek dantzariak jasotzen dituzte etxean eta bazkaltzen ematen diete. Eguneko zita garrantzitsuenetako bat alardea izango da, 17:00etan hasita.

**Santa Ursula eguna**

Bestalde, astelehenean herriko berezko patrioiaren eguna ospatuko dute, Santa Ursula. Udalak eta jubilatuek meza, bazkaria eta erromeria prestatu dituzte.

dunak. Horregatik, aurten hirugarren aldia antolatuko dute abenduaren 6an, San Nikolas egunean. Iaz 20 postu inguru ipini zituzten pilotalekuan, eta aurten ere hasi dira gonbidapenak bidaltzen.

Gazta eta Ardo Azokan harreara ona izan zuen beste ekitaldi bat Eusko Labeleko oilaskoen dastaketa izan zen. Horregatik, aurten ere ekimen hori mantentzea erabaki dute.

# izan zaitez berbalagun!



Arloko erakundeak eta Udalak



Batasunak



INFORMAZIOA eta IZEN EMATEA

**639 400 786**

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

[durangaldea@aek.org](mailto:durangaldea@aek.org)

[durangaldeko berbalagunak](https://www.facebook.com/durangaldeko-berbalagunak)

Partaide guztiek EHUko kredituak eskuratu ahal dituzte, bidaia eta egonaldietarako deskontuak. AIZU!, ARGIA eta BERRIA merkeago...

**BERBALAGUN ZURETZAT DA;** euskara gustuko baduzu, edo euskara praktikatu eta hobetu nahi baduzu, edo konfiantza hartu nahi baduzu.

**BERBALAGUN ZURETZAT DA;** euskeraz ondo badakizu, eta ikasi edo berba egin nahi duenari laguntzeko prest bazaude.

**Aita edo ama bazara eta eskolan umea badaukazu,** eskolan bertan eman ahal izango duzu izena, **gurasolagun** ekimenaren bitartez.

**> ZALDIBAR**

## Hiri-antolamenduari buruzko erabakiak hartzeko garaia

Parte-hartze prozesuaren bigarren fasea hasi dute, Hiri-antolamendurako plan berria diseinatzeko

**> I.E.**

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko parte-hartze prozesuaren bigarren atalari ekin zioten, atzo, Zaldibarren. Apirilean abiatu zuten *Zaldibar eitten!* izeneko prozesua, eta erabakiak hartzeko unea zabalduko dute urriko eta azaroko lan saioetan. Herriko lurzoru guztia zelan antolatu erabakitzea da prozesuaren helburua.

Lau lan saio egingo dituzte bigarren fase horren barruan; atzo egin zuten lehenengoa. Lehenengo fasean parte har-

tzaile guztien artean osatu zuten diagnostikoa aurkeztu, eta Plan Orokorren helburuak zehaztu zituzten atzoko batzarrean.

Urriaren 31n egingo dute bigarren faseari dagokion bigarren saioa, eta mugikortasunari buruz jardungo dira, besteak

Urriaren 31n egingo dute bigarren faseko bigarren saioa: mugikortasunaz ariko dira, besteak beste



Parte hartze prozesua gidatzen dabilzan Hiria kolektiboko kideak oso pozik daude herritarren orain arteko erantzunagaz.

beste: "Oinezkotze proiektu posibleak, eremu berdeak, komertzio txikiak, elkarbizitzarako eremuak eta ekipamenduak", hartuko dituzte, esaterako, batzar horretan berba. Herriko etxebizitza eskaerari eta etxe hutsen egoerari buruz ariko dira, bestalde, azaroaren 14an; eta baso kudeaketa eta elikadura burujabetzari buruz ariko dira, azaroaren 28an: "Garapen jasangarri baten aldeko ekintza zehatzak proposatuta".

Orain arteko saioetako herritarren parte hartzeagaz oso pozik agertu dira prozesua bideratu duen Hiria kolektiboko arkitekto, ingeniari, soziologo, ambientalista, eta antropolo-

"Garapen jasangarri baten aldeko ekintza zehatzak proposatuko" dituzte azaroaren 28an

goak: herriaren egungo egoeraren diagnostikoa egin dute, eta bizitza kalitateari, garapen lokalari, lanari, eta kohesio sozialari buruzko ondorioak atera dituzte, besteak beste.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzea helburu duten hurrengo batzarren inguruko informazioa zabaldu eskuratu eta prozesuaren jarraipena egiteko, [www.zaldibareitten.com](http://www.zaldibareitten.com) webgunea dute herritarrek eskura.

**> ELORRIO**

## Nanuken negoziazioa apurtu da bigarrenez

Kaleratutako langilearen gaian egon da apurtzeko gakoa; enpresa-hitzarmena adostuta zeukaten

**> MARKEL ONAINDIA**

Transportes Nanuk enpresan negoziazio mahaia eten egin da berriro. Aurreko negoziatortik hartuemanik eduki barik egon ostean, urriaren 10ean batu ziren enpresaren eta beharginen ordezkariak. Gainera, Eusko Jaurlaritzako bitartekariak ere batu ziren prozesura. Jaurlaritzan bertan garatu dituzte batzar horiek. Atzoko batzar berri bat zegoen deituta, eta enpresako ordezkariak ez ziren agertu. Kaleratutako behargina hartu ala ez, hor egon da hausturaren gakoa.

Hilaren 10eko batzarretik ikuspegi baikorragaz irten zutela azaldu dute langileen ordezkariak -LABek lau eta ELAk

bat-. Astelehenean bigarren batzarra egin zuten. Enpresa-hitzarmena adostu zuten, eta baldintza ekonomikoak ere bai. Baina kaleratutako behargina berriro hartzea ez zuen onartu enpresak. Grebalarien ustez, mendekuz egindako kaleratzea izan zen. "Ez dugu borrokatzea erabaki duen lankide batekiko mendekuz egindako kalera-tzerik onartuko". Beharginak lanera bueltatu behar duela exijitu dute. Enpresako gerenteak adierazi du lan karga gutxitu egin dela, eta behargin horren lanagaz ez zeudela gustura.

Nanukeko langileen erdiak daude greban. Gaurko manifestazioa deitu dute, 19:00etan plazan hasita.

## Presio fiskala gutxitu guran, diru-laguntzak eskainiko dituzte

**> M.O.**

Udalak 2013ko zerga eta tasak %2,5 igotzea onartu zuen ordonantza fiskalak ezartzerakoan. Igoerak konpentsatzeko, diru-laguntzak eskainiko dituzte, presio fiskala gutxitu guran.

Alde batetik, Ondasun Higienezinaren gaineko Zerga (OHZ)

ordaintzen lagunduko diete alargunei, pentsiodunei, langabetuei, ezinduak dauzkaten familiei, genero idarkeriaren biktimei eta guraso bakarreko familiei. Azaroaren 30era arte eskatu ahal dira laguntzak.

Bestetik, 18 eta 35 urte arteko gazteek etxearen alokairua ordaintzeko laguntza eskatu ahal izango dute. Udalak 9.000 euro dauzka ekimen hori bideratzeko. Alokairuaren erdia izango litzateke eskatzaileek jasoko luketen laguntza. Baina, muga 250 euroan ezarri dute. Urriaren 31 da epemuga.

**> ATXONDO**

## Auzo batzarra deitu dute azken postontziak ipintzeko

**> J.D.**

Atxondoko auzo eta baserri guneean azken postontzi unitateak jartzeko auzolana deitu du udalak. Urriaren 25ean, 09:00etatik 13:00etara egin dute deialdia. Udaletxe ondoan batu-ko dira.

Aurretik deitutako beste auzolan saio batean Arrazola eta Axpe inguruko postontzi unitateak ipini zituzten, baina oraindik Apata inguruko baserri guneeetako batzuk (Markoia ingurua, Abadiño zein Elorrio

Urriaren 25eko barikuan, 09:00etan, ipini dute auzolanerako hitzordua udaletxe azpian

ra bidean dauden baserri gunek...) falta dira. Horiek ipintzeko erabiliko dute auzolana. Era berean, jende nahiko batzen bada, eta denborarik badute, herriguneko zuhaitzen inausketa ere egingo dute. Auzolanaren ostean, udaletxe ondoan luntxa egongo da ekimenean parte hartu duten guztientzako.

Lanak amaitzen dituztenean 31 postontzi unitate berri (201 postontzi guztira) egongo dira herriko hainbat gunetan kokatuta. Postontzi bateratu horiekin postetxeko lana arintzea da helburua.

**> OTXANDIO**

## Plazaren eraberritzea aurkeztuko dute

Udaletxe pareko plaza eraberritzeko proiektua aurkeztuko diete herritarrei gaur, 19:00etan

**> JOSEBA DERTEANO**

Udaletxe pareko plaza eta inguruak (pilotalekua, pasealekua...) eraberritzea aurreikusten duen proiektua herritarren aurrean aurkeztuko dute, gaur, 19:00etan, udalbatzar aretoan. Gaurko aurkezpenaren ostean, proiektua kalera aterako dute, eta herritarrei iritzia emateko bideak irekiko dituzte. Hain zuzen, urriaren 26an eta 27an bolalekuan plazako eraberritze proiektuaren gaineko erakusketa egingo dute eta herritarrei euren iritzia emateko aukera eskainiko diete.

Plaza eraberritzeko asmoa aspaldikoa da. Orain plazako elementu guztiak logika baten barruan eraberritzea ahalbi-

detuko duen proiektua behin betiko lotzeko azken urratsak ematen ari dira: "Orain zer plaza eta zelan gura dugun zehazteko prozesuan gaude", adierazi du Santi Uribe alkateak.

Plazaren eraberriketarako hainbat lan aurreikusten ditu. Esaterako, frontoia zahartuta geratu da, eta materialak aldatuta berriztuko dute. Badago gune bat harbide itxura duena, eta oinezkoentzako deserosoa denez, moldatu egingo dute. Horrez gainera, besteak beste, plaza inguruan dagoen pasealekurako sarbidea erraztu gura dute.

Proiektua gauzatzeko hurrengo urratsa finantziarioa lortzea da, eta bide horretatik diru-laguntzak aztertzen dabilta.



Udaletxe aurrean dagoen plaza herritarren bilgune izaten da.

**> DURANGALDEA ASTEON****Amaia Fernandez garaile Bizikleta Festako zozketan**

Iurretako jaietan egiten den Bizikleta Festako zozketan Amaia Fernandezi egokitu zitzaion saririk handiena. 100 euroko txartel bat jaso zuen kirol dendetan trukatzeko. 50 euroko txartela Nagore Correarek lortu zuen, eta hirugarren saria, motxila, Maialen Alonsok.

**Lanbide heziketa zentroak 87 ikaslegaz hasi du ikasturtea**

Durangaldeko Lanbide Heziketa zentroak 87 ikaslegaz abiatu du ikasturtea. Horietatik 47k aurten hasiko dute euren formazioa; gainerakoek bigarren ikasturtea izango dute. Askotariko espezialitateak daude aukeran. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukera ere ematen du zentroak.

**Alemanian egon dira San Antonio-Santa Rita ikastetxeko hainbat ikasle**

Durangoko San Antonio-Santa Rita ikastetxean alemana ikasten dute, euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesagaz batera. Hori dela eta, 3. DBHko ikasle talde bat Alemanian egon da, alemana ikasteko prozesu horretan sakontzeko asmoz.

Alemanian egon diren egunetan eskolak hartu dituzte, eta hango familien etxeetan egon dira ostatu hartuta.

**> MALLABIA****Izar Gorri elkarteak jaurtiko du Urriko jaietako txupinazoa**

Punta-puntako kontzertuak antolatu dituzte Seiurte, Gatibu, Vendetta eta eMePebo5t taldeekin

**> JONE GUENETXEA**

Aurten 20 urte bete dituen Izar Gorri elkarteak izango da Urriko jaietako protagonista. Urriaren 25ean elkarteko kideek txupinazoa jaurtiko dute jaiei hasiera ofiziala emateko. Elizpeko pilota txapelketaren finala jokatu dute ostean. 22:30ean Eromen taldeagaz erroneria giroa sortuko dute, herriko plazan. Goizaldean, berriz, kantuzaleek kara-

kean abesteko aukera edukiko dute.

Zapaturako, urriaren 26rako, areto-futbol txapelketa eta frontenis txapelketak prestatuko dituzte. Arratsaldean, aldiz, buruhandiek herria zeharkatuko dute plazatik irtenda. Ondoren, jaietako nobedadea izango den toka txapelketan parte hartzeko aukera izango dute heldu zein umeek.



eMePebo5t taldeko kide bi mallabiarrek dira eta Urriko jaietan zuzeneko eskainiko dute.

**Gatibu kartelburu**

Antolatzaileek Urriko jaietako egitarauan punta-puntako taldeen kontzertuak egoteko ahalgina egin dute. Rock jaialdian batuko dituzte Seiurte, Gatibu, Vendetta eta eMePebo5t taldeak.

Urriaren 27an, berriz, gazte-txoen arteko pilota partiduak jokatu dituzte, goizean. Arratsaldean, mus, tute eta briska txapelketetan parte hartzeko aukera izango da. Ludotekan ipuin kontalaria izango da. Txo-

kolatada prestatuko dute plazan, eta bertatik buruhandiak irtengo dira. Jai egitarauarekin amaitzeko, aizkolariek eta harri-jasotzaileek erakustaldia eskainiko dute, Txondor herri-kirol elkarteak antolatuta.

**> IURRETA****Edateko ur-hornidura sareko lanak amaituko dituzte Orozketan**

Enkantera atera dute ur-hornidura sarea handitzeko proiektuaren 2. zatia, eta 276.000 euroko inbertsioa eskatuko duten lanak amaitzeko sei hileko epea dute

**> AITZIBER BASAURI**

Orozketa auzoan, edateko uraren hornidura sarea handitzeko proiektuaren bigarren zatia atera berri du enkantera udalak. Ia 276.000 euroko inbertsioa eskatu dute lan horiek.

Urriaren jasoko dituzte eskaintza ekonomikoak udal ardura-dunek, eta azaroan lizitatuko dituzte. Baldintza pleguan zehaztu duten legez, obrak hartuko

dituen enpresak sei hilabeteko epea izango du edateko ur-hornidura sarea handitzeko lanak amaitzeko.

lax, azaroan, egin zituzten ur-hornidura sarea handitzeko proiektuaren lehenengo zatiko obrak

Durangoko eta Iurretako sareak batzen diren lekutik Gibebeko biltegiraino (Orozketa) berritu behar dute edateko uraren hornidura sarea, eta sarearen luzeeragatik, fase bitan egin behar izan dituzte lanak. Orozketan, iazko azaroan egin zituzten ur-hornidura sarea handitzeko proiektuaren lehenengo zatiko lanak. Orduan 233.935 euroan eman zituzten lanak.

**‘Goietara ibilaldia’ eta Ertzile garaira bisita**

Europako Ondare Jardunaldien barruan bisita gidatu bi antolatu dituzte domekarako

**> A.B**

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Europako Ondare Jardunaldien barruan ‘Goietara ibilaldia’ mendi ibilbide gidatua izango dute, domekan, hilaren 20an, Iurretan. Hiru orduko bidea prestatu dute, eta gasolindegaren aurreko aparkalekuan egin dute hitzordua, 10:30ean.

Hala ere, ez da izango bisita gidatu bakarria. Izan ere, berres-

kuratutako Ertzile garaira ere egingo dute bisita hurreratu diren herritarrek. Horretarako Aita San Migel plazan batuko dira, 16:30ean.

‘Goietara ibilaldia’ mendi ibilbide gidatua izango dute, hilaren 20an

Komentukale 23 behe, 5. esk.  
48.200 Durango - Bizkaia  
688 864 975

**ZURE txokoa**

**DURANGON TXOKO ALOKAIKUA**

enpresa-bilera bataio urtebetetze ospakizunak jaunartze

**Bartholo's**  
hizkuntza akademiaren  
ekimena, langabetuei bideratuta.

- Kostu baxuko eskolak goizez, eta atzerrira joateko aukera.
- Astean ordu biren truke, 40 € hilean.

Informazio gehiago nahi izanez gero,  
Estherrekin jarri harremanetan:  
Tel.: 656 797 344  
Posta elektronikoa: mrs\_do@hotmail.com

# ► Berbaz

Mikel Campo eta Karmel Aranguena | Eskultoreak eta irakasleak | Gasteiz eta lurreta

## “Mañariko harriak fama handia zeukan munduko hainbat bazterretan”

Harri beltza da Mañarikoa. Kolore zuri eta gorrixka ere badauzka. Mañarian bertan harrobiei eta lehengo harginen lanari buruzko hitzaldia emango du zapatuan Mikel Campok. Karmel Aranguena ere bertan izango da, eta harria landuko du tresna zaharrek.



### > AMAIA UGALDE

Debako Arte Eskolako irakasleak dira Mikel Campo eta Karmel Aranguena eskultoreak. Harria lantzeaz gainera, harrien historia irakurtzen ere badakite. Mañariko elizpean egindako solasaldian argi geratu da hori. Zapatuan Mañariko frontoian hitzaldia eta erakustaldia egingo dute, 17:00etan hasita, Europako Ondare Jardunaldietan.

Lehengo harginen antzera landuko duzue harria zapatuan.

**Karmel Aranguena:** Orain makinekin egiten dugu lan eskolan, baina Mikelek lehengo teknikak azalduko ditu, eta erakustaldi bat egingo dugu, hormetako harriak zelaz lantzen ziren erakusteko.

Euskal Herrian harriak garrantzi handia izan du historian.

**K.A.:** Bai. Harginen hizkeran euskal hitz pilo bat dago, eta ez bakarrik hemen.

**Mikel Campo:** Galiziako harginek, adibidez, txakurrari *txakurro* deitzen zioten, eguzkiari *eguzki*, harriari *harri*... Berba asko euskal hitzak dira, baina beste leku askotako hitzak ere badaude. Harginek, normalean, koadrilaka egiten zuten lan, eta

hizkuntzak elkarrekin trukatzeko erabiltzen zituzten. Harginen artean, gainera, mitologia asko dago, eta esaten zen, hizkuntza sekretua zeukatela.

**Hizkuntza sekretua?**

**M.C.:** Jendeak pentsatzen zuen euren arteko kode sekretu bat zutela, eta hargin ona izateko hori ikasi behar zenuela. Hortik sortu ziren mito masonikoak eta.

**K.A.:** Neurri eta zenbakietarako euskarazko berbak erabiltzen zituzten... Euskal hargin guztiak *canteros vizcainos* moduan agertzen dira literatura guztian, eta oso famatuak ziren.

**Zergatik ziren hain bereziak bertako harginak?**

**M.C.:** Santiago bidea sortu zenean hartu zuten indarra. Alde batetik, harria lantzeko Europatik zetorren teknologia sartzen zen Pirinioetatik, eta beste alde batetik, bizi garen lekua pribilegiatua da. Ereñotik Baztanera bitarteko eremua kaliza harriz eta marmolez beteta dago. Penintsulan ez dago horrelako askorik, eta material hori oso ona da eraikuntzarako. Hemen inguruan, XV-XVI. mendean aitoren semeak ziren, eta foruen babespean obrak kontratatzeko

“  
*Harginen hizkeran euskal hitz asko dago (...) Hizkuntzak elkarrekin trukatzeko erabiltzen zituzten, eta esaten zen kode sekretu bat zutela*”

ahalemana zuten, inolako jauntxo beharrik barik. Ondareak zeuzkaten, eta obrarako abal gisa ipintzen zituzten euren baserri, lursail eta abelburuak.

**Zelan antolatzen zuten lana harginek?**

**M.C.:** Aprendiz lanetan hasten ziren lehenengo, eta kontratu zehatza zeukatzen; harginek semeak bailiran zaindu behar zituzten. Harria lantzen ikasi eta gero, onenek marrazten ikasten zuten, eta horiek hargin-maisu izatera heltzen ziren. Ez zegoen paperik, eta arkitektoek plano guztiak buruan zeuzkaten... Taldeka antolatzen ziren: Batzuek harria ateratzen zuten mendian, beste batzuk garraioaz ardura-

tzen diren, eta azkenek obran bertan egiten zuten lan. Harria ahalik eta gertuenetik ekartzen saiatzen ziren. Gasteizko katedraleko harria, adibidez, hamai-kilometrora zegoen eremu batetik ekartzen zuten. Imaginatu, bide horretan zenbat idi ibiliko ziren aurrera eta atzera. Tartean tabernak egin zituzten. Egur asko erabili zen eraikinerako, arotzak behar ziren... Eraikuntza lanek ekonomia guztia mugitzen zuten.

**Hemengo harginak kanpora joaten ziren lan egitera?**

**K.A.:** Bizkaiko harginek penintsula osoan egin zuten lan. Hemendik irten eta gero, ez ziren bueltatzen. Katedral batean bazebiltzan lanean, belaunaldiak behar ziren amaitzeko! Guadalajaran, Toledon... harginen ondorengoak abizen asko daude. Herri izen batzuk ere hemengo izenak dituzte: Nuevo Baztan, Mingorria...

**Harri batzuetan sinadura gisako zerbait egiten zuten, ezta?**

**M.C.:** Bai, marka bat. Hor teoria asko dago. Batek dio, lana amaitutakoan irudiak kontatu eta kobratzeko marrazten zituztela. Beste teoria baten arabera, irudi horiek hargin eskolenak dira...

**Zer dakigu Mañariko harriari buruz?**

**M.C.:** Jesuiten ordenak indarra hartu zuenean, euren eraikinetan luxu eta apaingarrietarako munduko hainbat lekutatik ekarritako marmolekin jokatzeko hasi ziren. Tartean, Mañarikoa. Harri bitxia modukoa zen eta apainketarako erabiltzen. Horretarako harriak arraro eta desberdinenak bilatzen zituzten. Euskal Herrian harri mota ugari dago: Ereñoko gorria, Markinako beltza, Mañarikoa, Debako arrosa, Baztango urdina...

**Mañarian, elizan eta hainbat hormetan dago harri hori. Kanpora ere esportatu zen?**

**K.A.:** Damaskoko mezkitaren batean badago, eta Paduako harriarekin eginikoa. Munduko hainbat bazterretan fama handia zeukan.

**M.C.:** Harriek asko bidaiatu izan dute. Markinako ere beltza da, eta hangoa asko erabili da meziketan. Musulmanek ezin dutenez eskulturarik egin, koloretako marmolekin jolasteko dute, xake taula gisako lurrag egiteko, adibidez. Kasualitatez, nire lehenengo eskultura Mañariko harriagaz egin nuen, eta oroitzen onak dauzkat.





# JATETXE GIDA

**ÑAM!****10.  
urteurrena**

## HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO  
**Tel.: 945 450 125**

Karta. Ardoak. Eguneko menua.  
Asteburuetan menu berezia.

**ÑAM!**

## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (2 aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)

## JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ  
**Tel.: 946 824 077**

Karta. Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.

**ÑAM!**

## PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ  
**Tel.: 946 826 246**

Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

**ÑAM!**

## PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4  
**Tel.: 946 030 300**

Eguneko menua astelehenerik zapatuta.  
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.



**Profesional onenak  
zure zerbitzura!**

**ÑAM!**

## NERE JATETXEA

Sanagustinalde, 4 DURANGO  
**Tel.: 946 203 910**

Eguneko menua. Egurdietan: entsaladak,  
errazioak eta plater konbinatuak.  
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.

**SEI HANKAKO MAHAIA**
**GOIZTIDI DIAZ**

EAJ


**Jaietan Jai**

San Fausto Jaietan gagozala, jai egitarauaren edozein ekitalditan parte hartzen dogula edota jai giroan murgilduta sentitzen garela, gogora etorri jataz antzinako jaiak. Ez bakarrik gure Uriko jaiak (onenak, zalantza barik), baizik eta euskal auzo eta herrietan bizi izan doguzan jaiak. 80 eta 90. hamarkadetako jaiak oroitu dodaz. Orduko ekitaldiak ez ziren oraingoak modukoak; kontrara, gehienetan nahiko xumeak ziren, gehienbat arlo ekonomikoari begiratuta. Merkeagoak, zalantza barik. Eta ez zan ezinbestekoa, gaur egun ez bezala, hainbesteko baimen, aseguru, ziurtagiri etab. antolatzaileen erantzukizun zibila babesteko. Alabaina, garai hartako jaiak beste osagai berezi bat eben: batzuen politizazioa. Gure inguruko jaietan ohi-koak ziren alderdi batzuen ekitaldi politikoak, jai egitarauaren beren-bereri sartuta edo egitarau ofizialek kanpo, disimuloan. Horretara, jai egunetan manifestazioak, elkarretaratzeak etab. loratzen ziren gure kale eta plazetan. Eta horiei guztiei gehitzen jakezan gure herri eta auzoak goitik behera betetzen ebezan kartel, pankarta, agiri eta abar luze bat. Betiere, lelo politikoa jakin batzuk errepikatuz. Eta askotan indarkeriaz betetako ekintzak ere pairatu behar izaten genduzan. Sarri baino gehiagotan. Garai horietan egunero entzuten genduzan "Jaiak bai, borroka ere bai" moduko esamoldeak, arlo guztietan *elfinjustificalosmedios* uste ebenen ezpainetan, noski.

Eta horretara, horri guztiari aurre egiteko, jai giro baketsua aldarrikatu eta errebindikatzeko sortu zan beste esamolde hau: "Jaietan jai". Jaietan gogoan hartu eguneroko arazoak, jaietan ez ahaztu berauek ospatu ezin dituzten pertsonak, jaietan be kontzientzia erabili, baina jai sano bizi, bakean. Ekitaldiak topera bizi, inor kaltetu barik, ezer kaltetu barik. Hasieratik amaierara. Herria goitik behera zikindu barik. Inor iraindu barik. Txupinazoetan kartel laidogarriak eskegi barik. Horixe gertatzen zan orain dala hamarkada batzuk... Edo aurtengo jaiari buruz ari ote?

**Izan gaitzen elkarren altzo**

Jaiotzen garetik babesa, beroa eta goxotasunaren beharra izaten dugu, gizaki ahulak jaiotzen gara, eta guraso edo amama eta aititen altzoan aurkitzen dugu nagusitu arteko babes tokia.

Bizitzan sartzen goazen neurrian altzo asko izaten ditugu konuratu barik, lagunak, irakasleak, bikoteak pixkanaka pixkanaka heldutasunera heldu arte.

Nork bere bizitza egiten dugu, eta familia bat sortu eta ume-uxoak altzoan hartzen ditugu. Ume horiek ere umeak izan eta aitite amamaren titulua izaten dugu eta gure altzoa bilobatxoekin toki pribatu bihurtzen da.

Irakurleak pentsatuko du: "Nora jo behar du honek?". Bada, Iurretako Mikel deuna jaietako bertso saiora noa.

Mirenek, Maialeni eta Ametsi jarritako gaira, atso agure bikotea ziren, gaztetan dantza saio asko egindakoak eta orain zahar-tzarroan, Iurretako enparantzan daude jendeari begira nola dantzatzuten duten, eta elkar animatuz plazara ateratzen dira...elkarri penak eta miseriak kontatuz, Ametsen esana geratu jatan" orain elkarren altzo izan behar dugu", honi bueltan emanda gaiaren sakontasuna eta edertasuna atera nahi dut.

Zergatik ezin dugu jarraitu txikitatik ikasitakoa? Utzi alde batera desadostasunak eta indartu berdintasunak, bikote askok haien arteko harremanak apurtu eta bakoitzak bere bidetik jotzen du, lagunaren arteko haserrearek ere loturak apurtzen ditu, izandako altzoak ahaztu egiten ditugu.

Zergatik ezin dugu bestearen altzoan babesa bilatu bizitzako sasoi guztietan? Pozez bizitzeko bide bat izan daiteke.

Zabaldugu begiak, eta, batez ere, bihotza, eta saia gaitzen elkarren altzo izaten.


Eskerrik asko Amets.

Jabier Lekerika


**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

 Bixente Kapanaga 9, 48215  
 astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak • telefonoa
  - helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
- Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

**Erditu behar duenak erabaki dezala!**

Pasa den irailaren 28an emakumeen osasunaren aldeko eguna izanik, abortatzeko eskubidea landu genuen Elorrion. Elorrixoko Txoko Feministako kideok eskubide horren defentsan kartel batzuk itsatsi genituen herrian, batzuetan abortatzeko izan ohi ditugun arrazoiak adieraziz, eta besteetan beste behin arrazoiak eman beharra ukatuz. Gure harridurarako, zerbait ulertu ez duen jendearekin egin dugu topo. Berehala kartel horien gainetik abortatzearen aurkako mezuak agertu dira, adibidez: "Zorionez nire ama ez zuen pentsatu hori" edo "No aborté para terminar mis estudios".

Abortatzeko eskubidearen alde egotea eta abortatzearen alde egotea ez dira berdinak.

Eskubideak erabaki askea bermatzen du. Honen alde dagoena ez da haurdun dauden emakume guztiei abortatzeko esaten diona.

Emakumea nahikoa eta sobera da ama izan nahi duen edo ez erabakitzeko. Haurdunaldi batekin jarraitu edo etetea ez da berehalako erabakia izaten. Eta hori gutxi balitz, abortatzeko hautua adierazten duen emakumea errudun sentiarazi, eta haurra- ren hiltzaile bilakatzeko ausartzen direnak ere badira, printzipio moralisten izenean, beste behin ere, emakumearen gorputza eta horren gaineko erabakiak lotu, kontrolatu eta epaituz.

Jendartean ematen den presioaz gain, bertako osasun sistema publikoa ez dago egoera hauetarako prestatuta eta Espainiar Estatuko abortuen %80 klinika pribatuetan eta ezkutuan egiten da. Horrela praktika hori normalizatu eta baldintzak hobetu beharrean, egoera kaxkarragoetan abortatzera bultzatuz.

Ez gara ari, abortua eta antikonzeptioak parekatzen. Emakumeak bereak baino ez diren arrazoiengatik, bere gorputza eta ugalketari dagozkion erabakiak hartzeko eskubideari buruz baizik. Ama izan nahi dugun edo ez erabakitzeko ahalmenaz ari gara, zenbat haur, noiz eta zein baldintzatan izan aukeratzeko eskubidearen alde egiten dugu.

Beste kasu askotan bezala ugalketan ere emakumeengan dago pisua. Bada, guk erditu behar badugu, guk erabaki beharko dugu nahi dugun edo ez!

Erabakia hartu duenak egin egingo du, eta baldintza egokiene- tan egin dezan bermeak aldarrikatu behar ditugu.

Elorrixoko Txoko Feminista

**Laguntzaileak:**

**anboto**  
 komunikabideak

 Bixente Kapanaga, 9  
 48215-Iurreta  
 (Bizkaia)  
 Tel.: 94 681 65 58  
 Erredakzioa:  
 94 623 25 23  
 Publizitatea:  
 94 621 79 02  
 publi@anboto.org

 2013ko urriaren 18a  
 11. urtea - 518. alea

**Zuzendaria:**

 Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
 Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
 Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
 Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
 Itsaso Esteban, Markel Onaindia  
 eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi.  
**Zuzentzailea:**  
 Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako,  
 Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

**Jaime Vicario** | Durango, 1958. | Margolaria

## “Lanak zuzentzen denbora gehiegi emateak ez dakar gauza onik”

### > ITSASO ESTEBAN

Jaime Vicario margolari durangarrari ez zaio bere lanaz berbaz jardutea gustatzen; dioenez, nahiago du “hau da egiten dudana, etorri eta ikusi” esan. Baina esfortzua egin du galderok erantzuten, eta azalpenak ematen. Joan zen barikuan, Durangoko Arte eta Historia Museoan zabaldu zuen ‘Ura’ erakusketari buruz jardun da.

Zer moduz joan zen barikuko inaugurazio ekitaldia?

Betiko jarraitzaile leialak eta aspaldiko lagunak ikusteko aukera izan zen, eta musika emanaldia ere eduki genuen, gainera, Ander Erzilla, Joxi Berna eta Txutxo Iturraldearen eskutik.

Durangoko museoan zure lanak erakusten dituzun lehenengo aldia da?

Ez, hirugarren aldia da hau. Baina aspaldi antolatutako genituen beste bi emanaldi horiek: azkena duela zazpi-zortzi urte.

Azken koadroek ez daukate, baina, orain arte erakutsi dituzunekin zerikusirik.

Momentuan gogoak eskatzen didana egiten dut, ez diot nire bu-

ruari galdetzen une bakoitzean zergatik nabilen nabilena egiten.

Durangoko museoko erakusketan, ura da koadroak biltzen dituen gaia. Konplexua dirudi ura margotzeak. Hala da?

Ez zait zail egiten, disfrutatu egiten dut ura margotzen. Horretan jardun dut azken urteetan. Beste denboraldi bat zeruak egiten eman nuen; distirak eta errelekuak margotzen.

Zenbateko dedikazioa dauka koadro bakoitzak?

Bakoitzak berea, egia esan. Bartzuk lanegun batean hasi eta amaitutakoak dira, eta freskotasun ikaragarria daukate, baina oso nekagarria izaten da hori. Horrelako baten ostean, gero aste-bete eman dezakezu margotu barik... Lan bakoitzaren atzean lanketa luzea dago. Dena den, lanak zuzentzen denbora gehiegi emateak ez dakar gauza onik.

Tresnak hartuta joaten zara margotuko dituzun lekuetara, edo argazkiekin egiten duzu estudioan lan?

Berezi egiten zaizkidan lekuetan argazkiak egin, eta estudioan egiten dut marrazkia. Garrantzi-



“*Erretiratu asko eta jende gaztea ditut ikasle, eta oso gustura nabil irakasle lanetan*”

tsua da jesarri, begiratu, eta argazkia egitea. Bizikleta eta argazki kamera hartuta joaten naiz. Estudioan lortu behar duzuna, esaterako, irudiari mugimendua ematea da. Inoiz egiten dudana da, koaderno batez joan, eta nagoen lekuan bertan, arkatzagaz zer edo zer txikia egin. Formatu handikoak estudioan egin beharrekoak dira.

**Pintura irakaslea ere bazara.** Udaleko ikastaroetan dihardut, Pinondo Etxean, duela hogeitete ingurutik. Erretiratu asko eta jende gaztea ditut ikasle, eta oso gustura nabil irakasle lanetan.

**Zelan hasi zinen margogintzan?** Beti margotu izan dut. Hasi-eran, lumagaz eta arkatzagaz. Oso margo soilak egiten nituen.

## Sormen bulkadak bultzatuta margotzen duenean gusturen



Frai Juan de Zumarragaren brontzezko bustoaren koadroan lortutako errelekuarekin bereziki harro dago Jaime Vicario: “Ez dakit zelan lortu dudana ere”. Itsasoko uraren hainbat aldaera margotu dituen eragaz, eta baita argiaren eta garrantasunaren lanketaz ere oso pozik dago. Zarauzko hondartzako surflarien irudia ere azpimarratu du: “Hiru olatu daude hor: datorrena, harrapatu zaituen eta apurtu dena”.

“*Naturak, paisaiek, garrantzi handia dute Jaime Vicarioren margogintzan; koadro asko egindakoa da, esaterako, Urdaibain*”

Orokorrean, sormen bulkadak bultzatuta margotzen dituen koadroek uzten dute Jaime Vicario gusturen.



Mugarrako pinuen koadroko zerua ere horrela sortu zuela kontatu digu.

Naturak, paisaiek, garrantzi handia dute Jaime Vicarioren margogintzan, eta Urdaibain, Izaro irlari, besteak besteak, koadro asko egindakoa da: leku berezia, “zoragarria”, Vicarioren berbetan Urdaibaiko biosfera. Duranagaldeko Atxarte, Untzillatx, Anboto, edo Urkiola bezala. Lagunen ortuetan, loreak eta ortuariak ere asko margotzen ditu.

Durangoko museoan azaroaren 3ra arte zabalik egongo den erakusketan, baina, urdina da kolore nagusia.

## &gt; PROGRAMAZIOA

# Ikasleen eguna berreskuratu eta indartuko du Durangoko Azokak

Ehunka ikaslek parte hartuko dute Gerediaga Elkarteak eta azokako guneek abenduaren 5erako gazteentzat antolatu dituzten ekimenetan



Gune bakoitzean eskaintza berezitua egingo dute, ikasleei zuzenduta.

## &gt; I.E.

Programazio zabala antolatuta, indarberitu egin du 48. Durangoko Azokak Ikasleen eguna. Gerediaga Elkarteak asteon jakitera eman duenez, hainbat ekimen parte hartzaile antolatu dituzte Ikasleen egunerako: abenduaren 5erako. Besteak beste, bikoizketa

eta ilustrazio tailerrak, idazle eta musikariekin solasaldiak, edota kontzertuak eskainiko dizkiete azokara bertaratzen diren gazteei: gune bakoitzean ikasleei zuzendutako eskaintza berezitua izango dute.

Urriaren 28ra arteko epea zabaldu du Durangoko Azoka antolatzen duen Geredia El-

karteak, egun horretako ekitaldietan parte hartu gura duten

Urriaren 28ra arteko epea zabaldu dute Ikasleen egunean parte hartu gura dutenek izena emateko

ikastetxeek gura duten ekimenetan izena eman dezaten.

Berbaro elkarteak dihardu Gerediagaz batera Ikasleen eguna antolatu eta koordinatzen. Azokan, Saguanbara gunea kudeatzen duen Berbaro elkarteak Oihane Barrutiak adierazi duenez, "euskararen plazarik handiena ezagutzeko etortzen dira txangoan ikastetxeak, eta bisita ahalik eta gehien aprobetxatu eta azokako gune guztiak ikus ditzatela nahi dugu".

### Askotariko tailerrak

Durangoko Azoka liburuz eta diskoz beteriko erakusmahaiak baino gehiago dela ikus dezatela gazteek, horixe da ikasleei zuzendutako egunaren antolakuntzan jardun direnen helburua. Horretarako, adibidez, Yolanda Arrieta idazlearen *Egun batez idazle* edo Anboto astekariak gidatuko duen *Egun batez kazetari* tailerra eskainiko ditu Berbarok.

Jon Arretxe idazlearekin eta EH Sukarra taldeko kideekin solasaldia egingo dute Ahotsenean, eta film baten euskarazko bikoizketa egiten erakutsiko diete Irudienean.

## GEURE DURANGALDEA

**JOSE MARTIN URRUTIA, 'TXOTXE'**

Irakaslea



## Rokia

Egunotan Lampedusa uhartearen inguruan itsas gainean zegoen gorpu bateri eskutitz hau aurkitu diote: "Bai gorpu bat naiz. Ez, ez naiz izurde, hegaluze ezta atuna. Ezta *mare nostrum* hau zeharkatzen duen hondakin bat, *levante* zakar batek bultzatuta.

Rokia dut izena eta nire semeak, Mali, Senegal, Burkina Faso, Niger, Nigeria, Ginea Bissau, Sierra Leona, Kamerun... dira.

Emakume emankorra naiz eta nigan haziak behin eta berriro ernaltzen dira. Semeak baditut, pentsa zenbat iloba: Brasil, Granada, Belize Haiti, Jamaika...

Gure beso eta odolarekin trenbideak, kanalak, urtegiak, etxeak, errepideak eraiki dira eta agian zuen ipurdi azpiko aulkiak. *Mare Vostrum* honek mendeetan irentsitako gorpuen hezur guztiak kostaldera, lurrera, hondartzetara bota ezker, ehunka zubi eraikitze materiala edukiko genuke: Alexandriatik Atenasera, Omanetik Marsellara, Sebatatik Algecirasera, Tunisiatik Siziliara, Goretik Bahiara, Mogadorretik Rio de Janeirora... Ez naiz izurde, hegaluze ez atun. Nire izena Rokia da.

Haserre, kokoteraino, minduta nago. Bor-bor daude nire zain eta giharrak, eta nahiz mila seme galdu, beste mila, hamar mila, ehun mila, prest daude harreria gurutzatzeko.

Kontaezinak diren mezuak bidali dizkizuet, sua odola eta kearen artean. Harriduraz begiratzen duzue gertatzen ari zaiguna, baina zuen begiradetan ez dago ezer, hutsik daude.

Zuek, bai zuek, itsaso-hesi horren parte, zati zarete. Tanta bat gehiago banantzen gaituen ur eremu honetan. Altxa ipurdi horiek!

Ez begiratu hortzemugarantz, han ez baituzue erantzunik aurkituko, erantzunak zuen sabelean, urdailean, hesteetan daude. Hautsi aulkiak, eta birikiak ongi betez oihukatu zuek ez zaretela hesi honen adreilu bat. Zuen eskuetan dago.

Ez naiz izurde hegaluze ezta atuna. Ezta *mare nostrum* hau zeharkatzen duen hondakin bat, *levante* zakarrak bultzatuta, nire izena Rokia da.

## &gt; MUSIKA

## Ume eta gaztetxoek kantaldiak, Plateruenean

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatu du domeka arratsaldeko Durangoko Plateruenean emanaldia

## &gt; I.E.

Kantu emanaldia antolatu du Euskal Kantuzaleen Elkarteak domeka honetarako. Durangoko Plateruenean, 18:30ean izango da emanaldia. Kantuzaleen elkarte horrek antolatzen dituen lehiaketetan parte hartu izan duten abeslari gazteak entzuteko aukera izango da etziko ekitaldian, Plateruenean.

Bizkaiko hainbat herritako kantari gazteak ariko dira Durangoko emanaldi horretan, bikoteka zein hirukoteka, kantuan. Barakaldoko Iraia eta Irantzu Rojo bikoteak, Sodupeko Maria, Josu eta Judith hiruko-

teak, eta Ermuko Leire eta Iker Elustondok kantatuko dute, besteak beste. Bestalde, Juanjo Zelaia kantuzaleen elkarteak kideak aurreratu duenez, sei urte baino ez dituen Ainhoa Azpitarte Durangaldeko kantariak ere hartuko du parte, gainera, Plateruenean emanaldian.

Bizkaiko hainbat herritako kantari gazteak ariko dira Durangoko emanaldian, bikoteka zein hirukoteka



Leire eta Iker Elustondo ermuarrek kantatuko dute, besteak beste.

Durangaldeko kantuzale guztiarentzako hitzordua da domekako Plateruenean. Kantari berriei publiko aurrean agertzeko aukera emateko helburuagaz antolaturikoa. Beraz, ume eta gazteen ahotsak entzuteko gonbita luzatuta dago.

Kantari berriei publiko aurrean agertzeko aukera emateko antolatu dute emanaldia

Hemen agertu gura badozu **deitu!**

946 217 902

**ACROMETRÍA**  
PSiRC

Urriaren 27an • 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGORO UDALA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URRIAK 18 - 20:00etan DOAN  
**AIKO TALDEA**  
Dantzaldia Gukaren txosnan  
Dantzaldi ibiltaria

URRIAK 19 13 euro  
**DEAFFEST**  
Musika kilometroak  
Landako Gunean 16:00etan/Plateruenean 19:00etan

URRIAK 24 - 20:00etan 15 euro  
**KANTULAGUN**  
Kantulagunen txokoa

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

## &gt; MUSIKA

# Deaffest musika jaialdiaren lehenengo edizioa, Durangon

Hamabi orduko zuzeneko musika eskaintza ekarriko du Deaffest jaialdiak bihar, Durangora. Landako Gunean eta Plateruenean izango dira kontzertuak

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Askotariko musika estiloak jorratzen dituzten hogeitik gora musika talde ariko dira bihar, Durangoko Deaffest jaialdian. Panda Artist promotorek antolaturiko ekimena da Deaffest, eta lehenengo edizioa ospatzeko Durango aukeratu dute.

Dantzarako doinuak eta pop psychodelikoa zein elektro-punka ere jorratzen duen Seals taldeak zabalduko du jaialdia, 16:15ean, eta goizaldera arte zuzeneko musika eskaintza oparoz gozatuko dute Durangora hurreratzen diren milaka musikazaleek.

Elepunto eta Ballbreaker Djen Plateruenean emanaldiak itxiko dute I. Deaffest jaialdia, baina horren aurretik, arratsaldean eta gauean, Landako Gunean eta Plateruenean ariko dira musikariak.

Euskal Herriko musika eszenaren gorenean diharduten musika taldeen emanaldiek erakarrita milaka lagun bertaratuko dira asteburuan, Durangora.

Besteak beste, 00:00etan Landako Gunean ariko den Berri Txarrak talde nafarra entzutera. Azaroaren 20an bi urte beteko dira Berri Txarrak hirukoteak *Haria* diskoa kaleratu zuela, eta datozen asteetan zuzeneko bi-rari amaiera emateko, hainbat kontzertu lotuta dituzte, Euskal Herrian zein Estatuan.

Milaka musikazale bilduko da, Durangon, bihar, Euskal Herriko musika eszenako puntako taldeek erakarrita

Berri Txarrak, Non Servium, edo Porco Bravo talde betaranoez gainera, talde hasiberriak ere entzungai izango dira bihar, Durangoko jaialdian: Plateruenean joko duten Herri Oihua edo Iurretako Krome, esaterako. Beraz, zerrenda luzea eta gustu guztiak asetzeko modukoa da Deaffest-ek eskainiko duena.

## ORDUTEGIA

## Plateruenean:

19:00 Sr. Mit  
19:45 Krome  
20:30 Subestim  
21:15 Herri Oihua  
22:00 Cohen  
23:00 Kokein  
00:00 Indarrap  
01:00 Mentenguerra  
02:00 Glaukoma  
03:00 Nao  
03:45 Dj. Elepunto & Dj. Ballbreaker

## Landako Gunean:

16:15 Seals  
17:00 Moksha  
18:00 On  
19:00 Crisis  
20:00 Porco Bravo  
21:00 Dj. Elvis Caino  
21:30 Willis Drummond  
22:40 Non Servium  
00:00 Berri Txarrak  
01:00 Dj. Göo  
01:30 Juantxo Skalari & La Rude Band



Gauerdian, Landako Gunean ariko da Berri Txarrak.

## &gt; ARGAZKIGINTZA

## San Faustoetako argazki lehiaketako lanak, ikusgai

Domekatik urriaren 27ra arte izango da lehiaketako argazkien erakusketa, Durangoko San Agustinen

## &gt; I.E.

Durangoko San Agustin kultur-gunean zabalduko dute domekan, F-Stop argazki elkarteak antolatutako argazki lehiaketaren erakusketa. Parte hartzaileek lehiaketa horretara aurkezturiko argazkiak izango dira bertan ikusgai.

F-Stop izeneko elkarteak lehenengoz antolatutako lehiaketa hori, eta asteburuan jaietan

egindako argazkiak bidaltzea eskatu die argazkizaleei.

Urriaren 20an, 13:00etan egingo dute lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Durangoko San Agustin kultur-gunean hori ere. Hainbat sari banatuko dituzte ekitaldi horretan: lehenengoa 300 eurokoa, bigarrena 200ekoa, hirugarrena 100ekoa, eta umeek egindako argazki onenentzako 50 euroko sari bi.



Kepa Aginako

## &gt; BERTSOLARITZA

## 'Gu ere bertsoan' ekimena ipini dute martxan Bizkaiko hainbat eskolatan

Durangaldeko bederatzi ikastetxetako 537 ikaslek egin dute bat ekimenagaz

## &gt; I.E.

Bizkaiko ehun ikastetxetan ipiniko dute martxan *Gu ere bertsoan* izeneko ekimena, 2013-2014 ikasturtean. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak bultzaturiko ekimena da *Gu ere bertsoan*, eta herrialdeko hainbat udalen eta Mankomunitateren laguntzarekin antolatutako dute. Bizkaiko hiru mila ikasle baino gehiagok parte hartuko dute, aurten, bertsolari buruzko ekimen honetan. Durangaldean, Abadiño, Durango, Iurreta, Zaldibar, Otxandio eta Zornotzako bederatzi ikastetxek parte hartuko dute proiektuan. Guztira, 537 ikaslek dihardute eskualdeko eskolatan bertsolari lantzen.

Hil honetan hasita, eta maiatzera arte, astero ordu batez, bertsolarietako irakasle batek gidaturiko saioa izango dute ikasleek aukeran. Irakasle horregaz, hamabi sekuentzia diktatiko berri landuko dituzte, eta euskara, kultura, musika, eta trebetasun pertsonal eta sozialak jorratuko dituzte. Durangaldearen kasuan, Xabier

Irakulisek eta Arantza Plazak dihardute irakasle lanetan.

Bertsoaren bidez, zeharkako beste hainbat gaitasun lantzeko ere baliatuko dute: besteak beste, jendaurrean aritzeko gaitasuna, autoestimua, edota elkarkidetzatza landuko dituzte.

Ekimenaren barruan, gainera, lau urterik behin ospatzen den eta jokoan den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiari ere jarraipena egingo diote parte hartzaileek.

"Urteetako lanak ematen duen esperientzia lagun, hobetu eta sendotu" egin dute proiektua



Zeharkako hainbat gaitasun landuko dituzte asteroko saioetan, esaterako, jendaurrean aritzeko gaitasuna

Urteak dira Bizkaiko Bertsozale Elkarteak ikastetxeekin elkarlanean proiektu hori martxan jartzen duena, eta antolatzailen berbetan, "urteetako lanak ematen duen esperientzia lagun, hobetu eta sendotu" egin dute proiektua urteotan.

## Irratian ere bai

Ikasgelan egiten duten lana osatzeko, bestelako hainbat jardura ere ekarriko ditu *Gu ere bertsoan* ekimenak Bizkaiko ikastetxe horietara. Bertsolarietako lotuta, eta Bizkaia Irratiarekin lankidetzan, esaterako, *Zortziko txikia* irrati saioa grabatuko dute astero-astero, urtarrilean hasi eta maiatzera bitartean. Asete bakoitzean, ikastetxe bateko bertsolarietako parte hartuko dute programan, eta gelan egindako lana irratiaren bitartez zabalduko dute.

Bertso kantaldiak ere antolatuko dituzte, gainera, ekimen horrekin bat eginda. Gitarra-jotzailearen laguntzarekin, kurtsuan ikasitako bertso-kantak kantatuko dituzte gaztetxoek.



# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apuingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz.  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com



## ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

ARGIZTATZE TEKNIKAK

### MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com



## ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO  
Tel.: 94 601 44 74  
Faxa: 94 621 55 74  
urtiaga.ni@terra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



## GARBIKETA

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2.esk - Elorrio - 615 79 12 15



## LOREZAINNTZA

Jardines  
**Patxi**  
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak  
zure zerbitzura!**

# **Kirola**

**Miren Manzidor** | Durango, 30 urte. | Tabirako Baqué taldeko jokalaria ohia

## “Jesus de Vicente eskola zaharreko entrenatzailea da, eta gustatzen zait”

Iaz Tabirako Baqué taldea eta saskibaloia utzi zituen 21 urteren ostean, baina ahal duenetan partiduak ikustera joaten da. Jesus de Vicente entrenatzaile berriak taldeari asko eman diezaiokeela uste du



Miren Manzidor, martitzenean, Durangoko Landako kiroldegian.

### > JOSEBA DERTEANO

Tabirako Baqué emakumeen talde nagusian jokalaria erreferentea izan da urte askoan. Une onak, ez hain onak eta hamai-ka abentura bizi izan ditu. Joan zen denboraldi amaieran agur omenaldia egin zioten. Bere ibilbide oparoa errepasatu, eta aurten taldeak zer eskaini dezakeen aztertu du.

### Zenbat urte eman dituzu saskibaloian jokatzen?

Guztira 21 urte eman ditut saskibaloian, guztiak Tabirakon. Ibilbide horrek hiru urteko parentesia izan du, 2006tik 2009ra, Alemanian egon nintzelako.

### Lan kontuengatik erabaki duzu saskibaloia uztea?

Ez da lan kontuengatik bakarrik izan. Saskibaloiak konpromiso bat eskatzen du; astegunetako entrenamenduek ez ninduten arduratzen eta ondo etortzen zitzaizkidan burua bizkortzeko, baina asteburuetako partiduetako denbora beste kontu batzuetara bideratzea gura nuela sentitzen nuen. Horrez gainera, adinak ere eragiten du psikologikoki. Izan ere, nire taldekideak oso gazteak izan dira azken urteetan. Beteranoena izan naiz

“

*Joan zen asteko partidua ikustera joan eta txarto igaro nuen, urduri; ahal dudanetan joango naiz Landakora”*

askogatik. Modu batera edo bestera eragiten du.

### Gaitz egin zaizu saskibaloia alde batera uztea?

Ezer ez egitera ohitzea ez da hain gaitza, baina konturatzen zara denbora pilo bat geratzen zaizula libre, batez ere, astegunetan. Lanetik irten eta zer edo zer egitea faltan botatzen dut. Arazoa da oraindik ez dakidala beste zer gustatzen zaidan.

### Astelehenak beteta dituzu.

Astelehenak bai. Tabirakoko jokalaria ohiak lagunarteko partiduetatik jokatzen batzen gara. Hamar bat lagun egoten gara.

### Entrenatzaile bokaziorik bai?

Alemaniar joan aurreko lau urteetan gaztetxoan talde bat entrenatu nuen. Oso esperientzia

polita izan zen, baina denbora saskibaloian eskaintzekotan, gurago nuke jokalaria aritu entrenatzaile baino, oraindik fisikoki ondo aurkitzen naizelako.

### Iaz denboraldi oso ona burutu zenuten. Mailaz igotzeko aukera ikusten zenuten?

Bai, jakina! (barreak). Beste guztiak gainera talde indartsu bi zeuden, baina hirugarrenak ezin zuten igo, goragoko mailako baten bigarren taldea zelako. Lehengo igoera fasea gainditzea posible ikusten genuen. Azken partidua galdu genuelako geratu ginen kanpoan. Gainera, ligan talde horri irabazita geunden. Horregatik uste genuen posible zela lehen fase gainditzea.

### Zer gertatu zitzaizuen partidua erabakigarri horretan?

Presioari aurre egitea ez da erraza. Talde gaztea ere bada... baina gerlariak dira, oso borrokalaria. Zuten guztia eman zuten.

### Beteranoak talde nagusira baten diren gazteen erreferente izaten dira. Sentitu duzu zelabaiterako erantzukizunik?

Beti esaten da deabruak gehiago dakiela bere adinagatik deabrua delako baino. Bai, erantzukizun

hori igarri dut. Jokalaria gazteei borrokarako grina hori sartzea badago gure esku, beti ere kakotx artean esanda. Ikusten duzu euren ispilua zarela, eta nagusia goek beti errespetu bat sortzen dute.

### Tabirako Baqué bizi izan dituzun unerik txarrenak belaueneko lesioak izan dira?

Bai, askogatik gainera. Emakumeen ligako bigarren mailan jokatzen genbiltzanean lesionatu nintzen. Maila horretan jokatu genuen bost urteetan taldean egon nintzen. Denboraldi-aurre batean lesionatu nintzen 19 urte nituela. Lotailu-haustura izan nuen, eta ebakuntza egin zidaten. Errekuperazioa ez zen ona izan, eta Santurtziko fisioterapeuta batengana bidali ninduten. Sasoi batean egunero lau orduz Santurtzira joaten nintzen. Ondoren, beste ebakuntza bat egin zidaten belauen berean, eta berriro hasi nuen errekupe-razioa. Erabat errekupe-arte pare bat urte inguru joan ziren.

### Eta zeintzuk izan dira unerik onenak?

Haur-kategorian eta kadeteetan Espainiako txapelketara joan ginen aldiak. Gazteetako urteak

ere oso politak izan ziren. Emakumeen ligako bigarren mailako urteen gomuta ona dut, batez ere, aurreneko urte bienean, mailan jokatzen ilusioa genuelako. Maila horretako jokalaria gehienak saskibaloitik bizi ziren, eta talderik gehienek fitxaketak egiten zituzten. Geu ginen salbuespena. Gu durangarrak ginen, eta Iurretako jokalaria bat izan zen gure kanpoko fitxaketa (barreak). Jai-tsiera fase bi gainditu genituen, eta hirugarrenean jaitsi ginen.

Joan zen denboraldi amaieran omenaldia egin zizuetan Alberto Molina (emakumeen entrenatzaile ohia) eta bioi. Zelan gogoratzen duzu egun hori?

Emozioz beteriko eguna, pozgarria eta tristea izan zen, dena batera. Baina, bai, oso polita izan zen. Ez nuen espero hainbesteko ekitaldirik: opariak, lore-sorta...

“

*Asteburuko partiduetako denbora beste kontu batzuei eskaini gura niela sentitzen nuen”*

**Aurten emakumeek indartsu hasi dute liga. Bi partidutik bi garaipen. Noraino heldu daitezke?**

Altura falta daukagu. Iaz hiru-lau pibot genituen. Aurten bi daude, baina bat lesionatuta egongo da Gabon osterara. Alde horretatik hutsunea dugu. Baina sartu diren entrenatzaileek ukitu berri bat eman diote taldeari, eta azkarrak eta arinak izaten ikasiko dutela uste dut. Kanpotik jaurtiketa ona dugu, baina, oro har, garaiera faltari aurre egiteko joko arina egin beharko dute.

### Zure talde ohiaren partiduetatik ikustera joaten zara?

Joan zen asteburuko ikustera joan nintzen, eta txarto pasatu nuen, oso urduri nengoen. Ahal dudan heinean saiatuko naiz partiduetara joaten.

### Jesus de Vicente entrenatzaileak zer eskaini dezake?

Taldearentzako entrenatzaile egokia da. Eskola zaharrekoa da, eta niri horrelako entrenatzaileak asko gustatzen zaizkit. Egia esanda, omenaldia egin aurretik jakin izan banu aurtengo entrenatzailea Jesus de Vicente izango zela ez dakit zer erabaki hartuko nuen... Defentsa lan ona eta joko azkar eta bizia, jokamolde hori eskaini dezake de Vicentek.

&gt; PILOTA

# Bizkaiko harrobiko onenak Cafés Baqué txapelaren bila

Aurten Bizkaiko pilotarietara mugatu dute txapelketa; lau onenek gaur, 19:30etik aurrera, gazte eta kadeteetako finalak jokatuko dituzte Durangoko pilotalekuan



Finaleko lau protagonistak eta federazioko ordezkariak astelehenean Bilbon egindako prentsaurrekoan.

## > JOSEBA DERTEANO

Cafés Baqué pilota txapelketak hainbat nobedade izan ditu aurten. Batetik, Euskal Herri osoko pilotariak beharrean, Bizkaikoek bakarrik parte hartu dute, eta bestetik, jardunaldiak Durangaldera mugatu beharrean, Bizkaia osoko pilotalekuetara zabaldu dituzte. Aldaketa horien abantaila eta desabantailekin, txapelketak bere bidea egin du, eta gaur, 19:30ean, finalak

jokatuko dituzte Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

Finalerdietan Durangaldeko pilotarien borrhero izan ziren

Arrankudiagar bi daude finalean; Arandia gazteetan eta Ibarrondo kadeteetan

Gorka Ibarrondo arrankudiagarra eta Aitor Etxebarria gernikarra neurtuko dira gazte mailako finalean. Lehenengoak Gorka Otaduy berriztarra kaleratu zuen finalerdietan, eta bigarrenak, Aitor Elordi mallabiarra. Final parekatua izateko osagai guztiak ditu, nahiz eta, Etxebarria faboritotzat jo daitekeen. Jokatzeko moduan ez dute zerikusirik batak eta besteak. Ibarrondo atzelaria da, eta

ahal duenean botera jartzen da bere eskuina aprobetxatzeko. Aurrealdeko joko azkarrean gehiago sufritzen du. Jokamolde horretan Otaduyk lanak eman zizkion finalaurrekoan, eta ezin izan zuen finalerako txartela segurtatu berriztarrek fisikoki behera egin zuen arte.

Etxebarria, aldiz, aurrelaria da, eta ohituta dago koadro alaietako jokamolde bizira. Elordiren kontrako partiduan argi utzi zuen moduan, tantoa zirt edo zart amaitzeko ahalmena du inspiratuta dagoenean, eta oso pilotari arriskutsua da partiduko erritmoa berak ezartzen duenean. Horregatik da faborito, airez zein botez tantoa amaitzeko erraztasun handiagoa duelako. Botera ere ez da kamutsa. Bere dohainak argi erakutsi zituen orain zortzi egun, Zaldibarko Olazar txapelketan. Lau t'erdiairen barruan, berriro Elordi izan zuen aurrez aurre, eta 22-7 irabazi zion. Dena dela, gaur egun Bizkaiko harrobian etorkizunik oparoena duten pilotarietako bik neurtuko dituzte indarrak.

## Kadeteetan parekotasuna

Kadeteetako finalak ere ez dauka faborito argirik. Finalerdiei erreparatu gero, Ander Arandiak asko sufritu zuen Xabier Arrizabalaga kanporatzeko (18-16), eta Oier Etxebarriak, aldiz, airean irabazi zion Mikel Urizarri (18-3). Baina Urizar bere mailatik behera ibili zen. Piloteoan nagusitzen denak gerutuago edukiko du txapela.

## ADITUAREN TXOKOA



**Kepa Arroitauregi**

Pilota teknikaria

## Beste bat

Bihar, zapatua, binakako beste final bat jokatuko da Bizkaia frontoian. Enpresek hala hitzartu, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesean, lehiaketa ofizialen artean *betegarri* lez sortutako esperimenteren azkena, 5 t'erdiko torneooa.

Orain artekoan pilotazaleak ez dio inolako jaramonik egin torneoari, garrantzirik ematen ez zaion seinale. Izarrik handienak batu dituzte Miribillako egoitza erraldoian, baina lortutako emaitza oso eskasa izan da.

Hala eta guztiz ere, bihar koan sarrera ona lortuko den susmoa dago. Lehiaketaren egitura berak hori ziurtatu gura izan zuen gainera, binakako azken final nagusian lesionatu zen Pablo Berasaluze bertan izango zela ziurtatu zutelako.

Bizkaitarren pilotari miretsiena finalean izango da, horrek dituen konnotazio guztiekin, gainera. Abel Barriolarekin batera Aimar Olaizola eta David Merinoren kontra jokatuko du berriztarrek, eta finalak berak pizten duen ikusminak baino gehiago, aurrekariak egingo dute pilotazalea Bizkaia frontoira hurreratzeko.

Beste final bat jokatuko du Berasaluze II.ak, eta jendearen berotasuna nabaritutako du, seguru, nahiz eta, partiduen zaporea eta tentsioak ez duen inolaz ere orain sei hilabetekoaren antzik izango.

Eta guztia, 4 t'erdiko lehiaketa nagusia hasten den asteburu berean, zeinetan berriztarrek ezingo duen parte hartu.

## > ZESTA PUNTA

# Berriatua Markinaren aurka sanfaustoetako finalean

Alberdi eta Aldazabal berriatuarrek Markinako Arbe eta Zabala izango dituzte kontrario bihar

Bihar, 18:00etan, XXX. San Faustozesta-punta Txapelketako finala jokatuko dute Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Bizkaiko bikote biren artean lehiatuko dute txapelketa: Antxon Alberdi eta Gorka Aldazabal berriatua-

rrak Jokin Arbe eta Jon Zabala markinarren kontra arituko dira. Lehenengoak erraz kanporatu zuten Zumaiako bikotea, finalerdietan (30-18). Bigarrenek tanto bakarreko aldeaz kanporatu zituzten Landa eta Suso.

## > ATLETISMOA

# Atletismo Eguna antolatu dute urriaren 26an

Besteak beste, gaueko krosa antolatu dute

Durango Kirol Klubak Atletismo Eguna antolatuko du urriaren 26ko zapatuan, 17:00etik aurrera, Ezkurdin. Lehenengo gaztetxoei (8-14 urte artekoak) zuzendutako askotariko probak egingo dituzte: erreleboak, lasterketak... Atletismoak modalitate erakargarri asko dituela era-

kustea dute helburu. Ondoren, nagusien erakustaldiak egongo dira, Geraxane Ussia korrikalariarena, besteak beste. 19:30ean, 4,5 kilometro dituen 14 urtetik gorakoentzako gaueko krosa antolatu dute Durangon zehar. Izenematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean egin daiteke, doan.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa  
Eitua Industriagunea 66 BERRIZ  
Tno 946827890 [macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)

ZARATE ELEXPE  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14  
durango  
946 810 776  
[info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)



> **FUTBOLA**

# Leioa liderrari une gozoan egingo dio aurre Kulturalak

Azken partidu biak irabazita, sailkapenean gora egin du Durangoko taldeak; Ekaitz Molina erdilariak bost gol sartu ditu partidu bi horietan



Ekaitz Molinak zelai erdian jokatzen du Durangoko Kulturalean. Jon Iglesias.

> **JOSEBA DERTEANO**

Durangoko Kulturalak joko bolada gozoan hartuko du bihar Leioa liderraren bisita. Azken partidu bietan sei puntu aterata, sailkapenean gora egin du, eta orain zazpigarren dago, liderrarengandik hiru puntura.

Garaipen bi horietan parte hartze zuzena izan du Ekaitz Molina 22 urteko erdilariak. Orain asteburu bi, Elgoibarren kontrako hiru golak berak egin zituen (3-1), eta joan zen astebu-

ruan, Portugaleteren zelaian beste bi sartu zituen (2-3). Iurretako taldetik fitxatu duten jokalaria sasoi betean dago. "Jarrai dezala punteria horrekin luzaroan", adierazi du Imanol de la Sota entrenatzaileak: "Area ertzean jasotzen duen baloia barrura bidaltzen du. Une onean dago. Entrenamenduetan ere ikusten da. Erremateak entrenatzen ditugunean denak bidaltzen ditu barrura". Talde lanagaz ere pozik dago de

la Sota: "Taldeak intentsitate handiagaz jokatzen du beti, eta alde horretatik ezin daiteke ezer esan. Talde dinamikoa dugu, eta Molinaren bolada ona talde lanaren ondorio ere bada".

Hala ere, oraindik "hobetzeko tarte handia" dutela dio: "Jokalari gazte asko ditugu, 19 eta 20 urtekoak. Goian presio handia egiten dugu, eta baloia berreskuratzen dugunean, batzuetan, lasaiatasun gehiago behar dugu".

> **MENDI LASTERKETA**

## Larizek kilometro bertikalen zirkuitua irabazi du Anboton

Zirkuituko hiru igoeretatik bi irabazi ditu

Mugarra Triatloi Eskolako arduradun Iñigo Lariz elgoibartarrak Lafuma Euskal Herriko Kilometro Bertikalen Euskal Zirkuitua irabazi du. Joan zen zapatuan, bera izan zen irabazlea zirkuituko azken proban, Anboto Kilometro Berti-

kalean (40.26). Oier Ariznabarreta (44.07) eta Ekaitz Kortazar (44.20) durangarrak laugarren eta bosgarren sailkatu ziren.

Emakumeetan Maud Combarie-k (51.19) irabazi zuen, eta Nahai Quincoces eta Larraitz Antxiak osatu zuten podiuma.



Lariz txapel buruan, Anbotoko Kilometro Bertikaleko podiumean.

> **XAKEA**

## Bizkaiko hainbat txapela jokoan, Traña-Matienan

Bihartik azaroaren 30era arteko zapatu arratsaldeetan (azaroak 2 kenduta) Bizkaiko xakelaririk onenak Traña-Matienan batuko dira, buruz buru, Bizkaiko xake txapelketan. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetak txapeldunak erabakiko dituzte Pino plaza ondoan duen lokalean. Abadiño Xake Taldeko xakelariak irabazteko hautagaien artean daude sasoi betean dabilzako. Partida azkarren euskal zirkuitua azken txanpan sartu denean, Abadiño dago lider. Gainera, oraintsu Santurtziko xake torneoa irabazi dute.

> **ERRUGBIA**

## Elorriok eta DRTk Euskal Liga hasiko dute

Euskal Ligako errugbi denboraldia hasiko dute asteburuan Elorrio Parra Tabernak eta Durango Ilarduya Bk. Talde biek etxetik kanpora jokatuko dute estreinako partidua. Elorriok Plentzian jokatuko du Uribealdea B taldearen aurka, domekan, 12:00etan. Durangoko taldea, berriz, Errioxara joango da Sport Tavern Rioja taldearen aurka jokatzen.

Durangaldeko talde bien arteko derbia azaroaren 24an jokatuko dute Elorrioko errugbi zelaian.

> **PADELA**

## Padel txapelketako finalak jokatuko dira asteburuan

Domekan izango dira finalik gehienak



Aurtengo padel txapelketako une bat.

Padel Zaleak elkarteak Durangon antolatutako duen padel txapelketa asteburu honetan amaituko da. Gaur eta bihar finalerdi batzuk jokatuko dituzte, eta finalik gehienak domekan 09:00etatik aurrera hasiko dira. Guztira zortzi final jokatuko dira: lehen eta bigarren mailan launa, beste hainbeste azpikategoriatan: gi-

zonak, emakumeak, mixtoa eta infantilak. Durangon dauden padel pista bietan banatuko dira aurren bigarren ekitaldia duen lehiaketako txapelak.

Era berean, Durangoko Fair Play klubak txapelketan jokorik garbiena erakutsi duten maila bakoitzeko padel jokalariei saria emango die.

**AGENDA**> **FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA**

**Durangoko Kulturala-Leioa**  
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

**OHOREZKO MAILA****Elorrio-lurretako**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

**MAILA GORENA****Zaldia-Arratia**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)****Berriz-Uritarra**

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

**BIGARREN MAILA****Iurretako B-Derio B**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaietan.

> **ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****Sasikoa-Elorrioko Buskantza**

· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

**MAILA GORENA****Sapuberri-Gramol**

· Zapatuan, 19:30ean, Landakon.

**LEHENENGO ERREGIONALA****Abadiñoako Gaztetxe-Beseka**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

**Elorrioko Buskantza C - Gernikako Lagunak**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

**BIGARREN ERREGIONALA****Gu Lagunak-Elorri Txiki**

· Zapatuan, 18:00etan, Landakon.

**Mendibeltz-Presion Break B**

· Barikuan, 20:30ean, Landakon.

> **SASKIBALOA****LEHEN MAILA (gizonak)****Tabirako Baque-Lehioak Zarautz**

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

**BIGARREN ERREGIONALA****Julza Zaldia-Paules**

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

> **ESKU PILOTA****CAFÉS BAQUÉ TXAPELKETA****Kadeteak:**

- Ander Arandia (Arrankudiaga)-Oier Etxebarria (Lemoa)

**Gazteak:**

- Gorka Ibarrondo (Arrankudiaga)-Aitor Etxebarria (Gernika)

· Barikuan, 19:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan (finalak).

**OLAZAR TXAPELKETA****Lau 1/erdian:**

- Erostarbe-Bakaikoa

**Binaka:**

- Andreu-Aldape / Arrese-Peñas

· Urriaren 24an, 21:30ean, Zaldibarren.

> **ZESTA PUNTA****SAN FAUSTO TXAPELKETA**

- Alberdi-Ubilla / Arbe-Zabala

· Zapatuan, 18:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan (finalak).

# ➤ Aisialdia

➤ MENDI IBILBIDEAK



Durungaldeko baso eta bazterrak ezagutzeko aukera ematen du ibilbideak. Durango MTB.

## Durungaldeari buelta bizikleta gainean

Eskualdea ia alderik alde zeharkatzeko aukera ematen du mendiko bizikletak

Durungaldea leku aproposa da mendiko bizikletaz ibiltzeko. Mendi, baso eta ingurune ederak ezagutu ahal dira bertako ibilbideak eginez. Eskualdea ia alderik alde zeharkatzeko aukera ematen du Durango, Abadiño, Berriz, Zaldibar, Mallabia, Elorrio eta Atxondo zeharkatzen dituen ibilbideak. Gainera, Mallabitik Elorriorako tartean Elgetatik igarotzea ere ahalbidetuko dio txirrindulariari. 46 kilometroko luzera dauka, eta ia lau orduko ahalegina eskatzen du.


Durangon irtenda, Abadiño-ko Gaztelua auzorantz joan behar da lehenik. Handik, pista hartu eta Berriztik Miñotarako errepidera. Bidegurutzean, aurrera jo asfaltozko bideetik. Azkeneko baserriraino jarraitu, eta ezker aldean dagoen bide bati heldu behar zaio. Beherantz joango da, Egaña lante-

giaren atzealdera irten arte. Zaldibartik Areitiora igotzea da hurrengo lana. Eskuineko pista bat hartu behar da Elgetara joateko. Gipuzkoako herrira heltzean, Intxortarako norabi-

dean jarraituko du txirrindulariak. Intxorta inguratu, eta Kanpazar-Elgeta errepiderantz jo behar da.

Kanpazarrera heltzean, Besaide ingururantz eroango

duen pista erabili behar du txirrindulariak. Handik, Atxondorantz jaitsiko da. Durangora bueltatzeko, errepide albotik Abadiñora jarraitu, eta ostean, bidegorria hartu daiteke.



### ZER IKUSI



Elgeta.



Anboto.



Besaide.

laguntzaileak



**Klik!>**



komunikabideak

# Anbotoren argazki lehiaketa "12hilabete, 12 herri"

Lagundu iezaguzu 2014ko egutegia osatzen.



## Sariak

Argazki irabazlea: 300€

Paisaiarik onena: 200€

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31.

Informazio gehiago: [anboto.org](http://anboto.org)

# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

**FU** AGENCIA INMOBILIARIA  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behe • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ARTEKALE: 8 etxebizitzaren eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoko. Trastelekuarekin. 140.000 €tik aurrera.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatuko. 114.000 €
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekoko apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

### DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatuko.

## TXALETAK

- DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoko eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ARKOTZA: Halla, sukaldea, egongela, 4 logela, komuna eta bainugela. Ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta komun 2. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- UNDTORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta komun 2. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- BERRIZ: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trastelekua.
- ELORRIO: Berreraikitzeako etxea, lursailduna.
- IURRETA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekua. Guztiz berriztatua.
- IURRETA: Arriandi auzoa. Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta komun 2. 12 m2-ko trastelekua. Oso egoera onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubieta. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- BASERRIA LUR EREMUJAREKIN SALGAI MENDATAN ETA BERRIZEN.

## BESTE ESKAINTZA BATZUK BULEGOAN

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ASKATASUN ETORBIDEA



- 90 m2. 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia, despentsa eta komun 2. Garajea eta ganbara. 265.000€.

### ASKATASUN ETORBIDEA



- Berrizteko dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Ganbara. Balkoia. 165.000€.

### KOMENTUKALEA



- Durango erdialdean. 87 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Ganbara. Igogailua. Berogailua. 185.000€.

### TABIRA



- Apartamentu erdi berria. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Ganbara. 160.000€.

### SANMARTINPE PORTALEA



- Durango erdialdean etxebizitza salgai. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Berogailua. Leiho berriak. Igogailua. 195.000€.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ARTEKALEA: 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea office-arekin. Bizitzaren sartzeko moduan. 136.000€
- MATIENA: Ezezena. 3 logela eta egongela. Terraza. Igogailua. 179.700€
- SAN IGNAZIO: 3 logela, komun 2 eta egongela terrazarekin. Garajea. Igerilekua. 250.000€
- ARANDOÑOTORRE: 100 m2. 3 logela. Terraza.
- ALLUITZ: Logela 2. Bizitzaren sartzeko moduan. Ganbara. Garaje itxia. 198.400 €
- OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldea. 3 balkoi.
- TABIRA: Apartamentua. Erdi berria. Ganbara. 160.000€
- IURRETA: Estreinatzeako. Alokairuan. 550 . Erosteko aukerarekin.
- IURRETA: 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Terraza. 139.000 €
- TABIRA: 3 logela eta komun 2. Trastelekua eta garajea.
- MATIENA: Trañabarren. 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Ganbara. Eguzkitsua. 195.000 €
- ABADIÑO: Arlozabal. Logela 2 eta komun 2. Garajea eta trastelekua. 155.000€
- TXATXIENA: 3 logela, komun 2, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 90 m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea eskegitokiarekin. Trastelekua eta kotxerako garage 2.
- IZURTZA: Logela 2, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 124.000 €
- BARRENKALEA: 3 logela eta egongela. Berriztatua. 156.000 €
- BERRIZ: Logela 2. Berriztua. 136.000 .
- F.J. de ZUMARRAGA: 100 m2. 3 logela, egongela eta terraza. Igogailua.
- OÑITURRI: Erdi berria. 80 m2. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Trenbide. 95 m2. 3 logela, komun 2 eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela eta komun 2. Terraza. Ganbara eta garajea.
- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua.
- MURUETATORRE: Azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.
- DURANGO: txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.
- 900 m2. 3 solairutan banatuta. 330.000 .
- BASERRIA: 421 m2. 7.500 m2-ko lursaila. 390.000 .
- BERRIZ: Txaleta. Abeletxe. Estreinatzeako. 362 m2.
- BERRIZ-ELORRIO: Baserría. 2 etxebizitza. 420 m2. 22.000 m2-ko lursaila.
- ABADIÑO: Txaleta. Bi familiarentzako. 380 m2. 3 solairu eta 380 m2-ko atikoa. 520.000€
- ATXONDO: Txaleta. Eraikuntza berria. Familia bakarrarentzako. 4.000 m2-ko lursaila.

## ETXEBIZITZA BERRIAK

- ZALDIBAR: Kurutzear plaza/Solonagusia. Garajea eta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 118.000€2 logela eta 2 komun. 138.000€3 logela eta 2 komun.178.000€BEZ-a barne.
- MAÑARIA: Etxebizitzak estreinatzeako. 189.500 .
- DURANGO: EXEBIZITZAK TERRAZAREKIN. 1,2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO: Estreinatzeako. 2 eta 3 logela. 30 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua.

## GARAJEA SALGAI

- INTXAURRONGO: Itxia.
- SAN IGNAZIO: Itxia. 21.000 .
- ABADIÑO: Muntsaratz: Itxia.



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urriaren 24an, 18:00etan,  
Berrizko kultur etxean

## Lorategian

Gasteizko Teatro Paraiso eta Belgikako Guimbarde taldeen elkarlanetik sorturiko ikuskizuna da, 'Lorategian'. Antzerkia, bideoa, itzalak eta marrazkiak hazten dituzte lorategi honetan, publikoari ikusmen aktiboko bizipena proposatzeko. Urte bat eta hiru urte arteko umeei eta euren familiei zuzenduriko ikuskizuna da.



### Erakusketa

#### :: DURANGO

Azaroaren 3ra arte, **Jaime Vicarioren 'Ura'**, Arte eta Historia Musean.

Urriaren 31ra arte, **Zalao Fuertesin 'Egun bat, argazki bat'**, Plateruenean.

#### :: ZORNOTZA

Urriaren 26ra arte, **Iñaki Mendizabalen argazkiak**, Zelaieta Zentroan.



### Antzerkia

#### :: BERRIZ

Urriaren 24an, 18:00etan,  
**Lorategian**, kultur etxean.

#### :: ELORRIO

Urriaren 25ean, 22:00etan,  
**Shakespeare**, Arriolan.



### Jaiak

#### :: DURANGO

Urriaren 18an, 17:00etan,  
**Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak**, Ezkurdin.  
18:00etan, **Tortilla txapelketa**, Txosnagunean.  
19:30ean, **Cafés Baqué esku-pilota txapelketaren finala**, Ezkurdi Jai-Alai frontoian.  
22:00etan, **Vocal Tempo**, Andra Marian.  
22:00etan, **Seiurte, Anai-arrebak eta Belako**, txosnetan.  
22:30ean, **Bertsos saioa: Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Jone Uria, Nerea Ibarzabal, Jon Maia eta Sustrai Colina**, San Agustín kultur gunean.

Urriaren 19an, 07:00etan,  
**diana txistulariekin**.  
07:30ean, **'Zezenak dira'**, dultzaineroekin.  
10:30etik 14:30era, **federatu gabekoentzako xake txapelketa**, Ezkurdiko aterpean.  
11:00etan, **nekazaritza azoka**, Merkatu plazaren inguruan.  
11:00etatik 14:00etara, **umeentzako mozorro tailerra**, Andra Marian.  
11:30ean, **kalejira txistulariekin**.  
12:00etan, **Patata tortilla**

**txapelketa**, Merkatu plazan.  
**Txiri-Txiri taldeko trikitilarien kalejira**, Alde Zaharrea.  
**Kalejira Durangoko Orfeoia-gaz**, Alde Zaharrea.  
**XXX. San Fausto Zesta-punta Txapelketaren finalak**, Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.  
13:00etan, **triki-bertsos poteoa**, Alde Zaharrea.  
**Haurren mozorro-desfilea eta sari banaketa**, Andra Marian.  
15:00etan, **Herrira bazkaria**, txosnetan.  
**Ondoren, eskularen azoka txikia**.  
17:00etan, **futbol partidua**, Tabira zelaian.  
**Lehen mailako gizonezkoen saskibalo partidua**, Landako kiroldegian.  
**Animazioa trikitixarekin**.  
18:00etan, **umeentzako ekinga sorpresa**, Txosnagunean.  
18:30ean, **taldekako mozorro desfilea**, Madalenatik Andra Mariaraino.  
18:30ean, **Kalejira Sugarri Showrekin**, Alde Zaharretik.  
19:00etan, **Lapsus Kabaret**, udaletxeko plazan.  
20:00etan, **Ghetto**, Txosnagunean.  
**Jon Urbieta eta Oihan Vega Djak**, Andra Marian.  
21:00etatik 00:00etara, **indarkeria sexistarik gabeko txokoa**, Txosnagune ondoan.  
21:00etan, **suzko zezena**, Ezkurdin.  
21:30ean, **animazioa Ghanako txarangarekin**, Alde Zaharretik.  
23:00etan, **Gibelurdinek eta Luhartz**, Txosnagunean.  
**Nuevo Talisman**, Ezkurdin.  
00:00etatik 03:00etara, **alkoholemia kontrolaren stand informatiboa eta testing programa**, Txosnagunean.

Urriaren 20an, 07:00etan,  
**diana txistulariekin**.  
07:30ean, **'Zezenak dira'**, dultzaineroekin.  
10:00etatik 14:00etara, **haur parkea**, Ezkurdin.  
**Areto-futbol txapelketa 3x3**, Merkatu plazan.  
11:30ean, **kalejira txistulariekin**.  
**Familia osoarentzako bizikleta jai**, Andra Mariatik irtenda.  
12:00etan, **II. padel txapelketaren finalak**, Landako kirolgunean.  
11:45ean, **Tabira Musika Bandaren emanaldia**, J.M. Barandiaran Egoitzan.  
12:00etan, **II. paella txapelketaren finalak**, Landako kirolgunean.  
**Ibilaldiak ponyan**, Landako parkean.  
12:00-14:00, **arku-tirorako gunea**, Landako parkean.  
12:30ean, **hegazti harraparien erakustaldia**, Santana plazan.  
12:30ean, **herri-kirol erakustaldia**, Ezkurdin.  
13:00etan, **I. argazki txapelketaren sari banaketa**, San Agustinen.  
13:30ean, **Bilbainadak Gaspasa taldearekin**, Andra Marian.  
16:00-20:00, **3x3 areto-futbol txapelketa**, Merkatu plazan.  
16:00-19:30, **Kondaira ludoteka**, Ezkurdin.  
16:30-

19:30, **Haurrentzako Ecoxoc jokoak**, Ezkurdin.  
17:30ean, **Txiri, Mirri eta Txiribiton junior**, Ezkurdin.  
18:00etan, **Corrientes Navarras taldearen jotak**, Andra Marian.  
18:30ean, **Guretzat fanfariaren kalejira**.  
19:30ean, **kalejira Patxikotxuri agur esateko**, udaletxe aurreko plazan hasita.  
20:00etan, **jaien amaiera**, Landako skate pistan.



### Kontalaria

#### :: BERRIZ

Urriaren 19an, 12:15ean, **Josu Kamara**, kultur etxean.

#### :: DURANGO

Urriaren 18an, 20:00etan,  
**Virginia Imaz**, Bibliotekan.



### Musika

#### :: DURANGO

Urriaren 19an, 16:00etatik aurrera, **Deafest musika jaialdia**, Landako Gunean eta Plateruenean.

Urriaren 20an, 18:30ean,  
**Haur kantari txapelketa**, Plateruenean.

Urriaren 24an, 20:00etan,  
**Kantulagun**, Plateruenean.



### Berbaldia

#### :: DURANGO

Urriaren 25ean, 19:30-21:00,  
**Yoga irakasleen prestakuntza ikastaroaren aurkezpena**, Dharananda yoga zentroan.

Urriaren 26an, 09:45-13:00,  
**'Yoga: oreka fisikotik oreka mentalera'**, Dharananda yoga zentroan.



### Zinema

#### :: BERRIZ

Urriaren 16an, 20:00etan,  
**Den dena kendu ziguten**, kultur etxean.

## URRIKO AGENDA



18	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> Haurtxoen irakurketa klubaren aurkezpena. 17:00 (HHko 3, 4 eta 5 urteko gelakoak). 18:00 (LHko 1 eta 2. mailak). Taldea biek gurasoek lagundurik egon behar dute.
19	<b>IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA</b> 9:30 Hainbat ibilbide (65 - 80 km).
20	<b>ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIA</b> Garaietara ibilaldia, bisita gidatua (3 ordu). 10:30 (Gaztelaniaz), 11:00 (Euskaraz). Iurretako gasolindegiko aparkalekutik. 16:30 Ertzile, berreskuratutako garaiari bisita gidatua. Aita San Migel elizatik.
21	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> 18:15 Emakumeen literatur tailerra.
21-31	<b>ERAKUSLEIHO LITERARIOAK HERRIKO DENDETAN IKUSGAI</b> Mailegu bat = liburu bat.
23	<b>EMOIXU ODOL ELKARTEA TXONPOLO ELKARTEAN</b> 16:00 - 21:00 Odol ematea.
24	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> 17:30 "Apiko" umeentzako jaialdia. 18:30 Txokolatada. 20:00 Helduentzako errezitaldia eta luntxa.



#### :: DURANGO | ZUGAZA

##### 1. aretoa:

##### Capitan Phillips

Zuzendaria: Paul Greengrass

- barikua 18: 19:15/22:00
- zapatua 19: 19:30/22:30
- domeka 20: 18:45/21:15
- astelehena 21: 18:15/21:00
- martitzena 22: 20:00

##### Zipi & Zape y el club de la canica

Zuzendaria: Oskar Santos

- zapatua 19: 17:00
- domeka 20: 16:45

##### 2. aretoa:

##### Prisioneros

Zuzendaria: Denis Villeneuve

- barikua 18: 19:15
- zapatua 19: 19:30/22:30
- domeka 20: 19:00
- astelehena 21: 18:15/21:00
- martitzena 22: 20:00

##### Zipi & Zape y el club de la canica

- zapatua 19: 17:00
- domeka 20: 16:45

#### :: ELORRIO | ARRIOLA

##### El último Elvis

Zuzendaria: Armando Bo

- zapatua 19: 22:30
- domeka 20: 20:00
- astelehena 21: 20:00

#### :: ZORNOTZA

##### El mayordomo

Zuzendaria: Lee Daniels

- barikua 18: 22:00
- zapatua 19: 19:00/22:30
- domeka 20: 20:00
- astelehena 21: 20:00

##### Zipi & Zape y el club de la canica

- zapatua 19: 17:00
- domeka 20: 17:00

##### Born into brothels

Zuzendaria: Zana Briski eta

- Ross Kauffman
- martitzena 22: 20:00

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguzteteneko 14:00ak arteko epea



> **Anerrek** urriaren 21ean 10 urte beteko ditu. Zorionak *alike*!



> Zorionak **Aiala**! Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Musu eta besarkada handi bat etxekoan partez.



> Irailak 25ean **Irati** jaio zen. Beste neskatila bat kuadrillarako! Zorionak Eneko eta Maider.



> Axpeko **Saioa Arrasatek**, urriaren 17an, 13 urte beteko ditu. Ander Arrasatek, 11 urte beteko ditu hilaren 21ean. Zorionak Axpetik eta Lekitxotik, etxeko guztien partez.



> Gure etxeko pirata txikixek bost urte egin ditu. Zorionak etxeko guztixen partez **Aratz**. Pila bat musu goxo!



> Urriaren 18an **Lander Garitaonandia Aizpuruak** 6 ute egingo dauz. Zorionak, eta musu bat etxeko guztion partez.



> Zorionak **Esther**! Gaur, 20 urtetxo beteko dozuz. Primeran pasau! Asteburuen bidan moduen ospatuko dogu!



> Lehengusu hauek urteak ospatzen dituzte hilabete honetan. **Beñatek** 7 hilaren 13an eta **Urtzik** 4, 21ean. Zorionak familiakoan partez! Musu handi bat!



> Zorionak **Jokin**! Urriaren 23an 8 urte beteko dozuz. Oso ondo pasatu. Musu haundi bat gurasoen eta Ibairen partez.



> **Martin Amilibia**, zorionak zure urtebetetze familiaren partez. Musu handi bat.



> Urriaren 14an izeko **Iratxek** urte pillo bat bete ebazan. Zorionak Irati, Oroitz, aita eta amantxon partez. Musu bat.



> Zorionak **printzesak**! Urte bat pasa da zuen aurpegi txiki polit horiek lehenengoz ikusi genituenetik, eta orain zuen ondoan egon barik ezin dugu zoriontsu izan. Musu potolo bana amatxo eta aitatxon partez.



> Urriaren 9an **aitite Patxik** urteiek bete ebazan. Zorionak eta musu bat Irati, Oroitz, Txaber, Urtxi eta Itzalen partez.



> Zorionak **Gorka** eta **Mikel** Latorre Lasuen. Zuen 8. eta 4. urtebetzean, muxu haundi bat Markelen partez.



> Domekan **Mauik** 9 urte bete ebazan. Zorionak eta musu erraldoi bat gure etxeko txapeldunarentzat.



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean tarta bat zozkatzen dugu. Horretarako, beharrezkoa da zorion agurrarekin batera kontakturako datuak bidaltzea.

**> BOTIKAK**

- BARIKUA, 18** - 09:00-09:00  
 • **Etxebarria** (Montevideo etor. 2 - Durango) 09:00-22:00  
 • **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)  
**ZAPATUA, 19** - 09:00-09:00  
 • **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta) 09:00-13:30  
 • **Etxebarria** (Montevideo etor. 2 - Durango)  
 • **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)  
 • **Campillo** (Montebideo 24 - Durango)  
 • **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)  
 • **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
 • **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)  
 • **Sagastizabal** (Askatasun etor. 19 - Durango)  
 • **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)  
 • **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)  
 • **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)  
**DOMEKA, 20** - 09:00-09:00  
 • **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)  
**ASTELEHENA, 21** - 09:00-09:00  
 • **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango) 09:00-22:00  
 • **Egaña** (Bekoetxe 4 - Zaldibar)  
**MARTITZENA, 22** - 09:00-09:00  
 • **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)  
**EGUAZTENA, 23** - 09:00-09:00  
 • **Campillo** (Montevideo etor. 24 - Durango)  
**EGUENA, 24** - 09:00-09:00  
 • **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango) 09:00-22:00  
 • **Bengoa** (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak ..... 112  
 Gurutze Gorria ..... **94 681 09 49**  
 Osakidetza ..... **94 600 72 00**  
 Ertzaintza ..... **94 466 93 00**
- > GARRIAOK**
- Euskotren ..... **902 54 32 10**  
 Bizkaibus ..... **94 448 40 80**  
 Pesa ..... **902 10 12 10**  
 Continental Auto ..... **945 286 466**
- > TAXIAK**
- Abadiño ..... **94 681 44 70**  
 Matiena ..... **606 459 988**  
 Durango geltokia ..... **94 681 10 01**  
 Elorrio geltokia ..... **94 682 00 40**  
 J.L. Uriarte ..... **670 402 002**  
 I. Estebez ..... **670 678 273**  
 M. Galeano ..... **670 409 330**  
 Iurreta taxi auzunea ..... **688 618 690**  
 Berrizko auzo taxia ..... **620 022 800**

**> EGURALDIA**

16° <b>24°</b> ZAPATUA ☁	14° <b>24°</b> DOMEKA ☁
14° <b>24°</b> ASTELEHENA ☁	13° <b>22°</b> MARTITZENA ☁

**> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**



**Abadiño (Traña-Matiena)**  
Eguaztetenan  
10:00etatik aurrera

**Durango**  
Zapatu goizetan

**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

Letxuga.....**0,80 euro**  
 Letxuga haritz hostoa .....**1 euro**  
 Azelga .....**2 euro/kg**  
 Espinaka txorta .....**1,20 txorta**  
 Berakatz freskoa .....**1,50 txorta**  
 Ilarrak .....**6 euro/kg**  
 Tomate kontserba.....**3,90 euro/potea**  
 Arratzak.....**3,80 euro/dz**  
 Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**  
 Gari integraleko ogia .....**3,30 euro**

# “Krisiarekin, agian, lehengo joku sinpleek arrakasta eduki dezakete”

Urriko jaietarako toka euskal jokoa prestatu du. Argazkilaritza da Valentin Mugarzaren pasioetako bat

## > AMAIA UGALDE

Mallabian jaiak badira, edo azokaren bat, dantza emaldia edo triatloia badago, ez da urruti ibiliko Valentin Mugarza, argazki kamera eskuetan. Urriko jaietan iaz igelaren jokoa antolatu zuen, eta aurten aspaldiko beste euskal joko bat prestatuko du: toka. Igelaren jokoa antzekoa da. Prest dauka burdinezko xafla daukan kaxa. Orain, fitxak botatzeko punteria baino ez da behar.



## Zergatik aukeratu duzu toka jolasa?

Lehengo urteko jaietan, igelaren jokoa antolatu genuen, eta toka jokoa ere ezagutzen nuen lehenagotik. Egiteko oso erraza denez, hori prestatzea pentsatu genuen. Mallabian nik ez dut ezagutu, baina herri batzutan ikusi dut, eta Idiazabalgo auzo batean gogoratzen dut parte hartu nuela. Herri askotan leku finiko batean egon izan da jarrita, elizaren alboan-eta.

## Materiala erraz lortu duzu?

Interneten gutxi gorabeherako neurri batzuk jartzen ditu, ez da zehatz-zehatza. Fitxak jaurtizko distantzia ere ez da ziurra. Batak eta besteak lagunduta, erraz lortu dut. Batek egurrak eman dizkit, beste batek burdina apurtu du bere tailerrean, fitxak beste nonbaitetik lortu...

Azkenean inon erosi beharrik barik lortu dut materiala.

## Lehengo jokuak urtero berreskuratzeke asmoa daukazu?

Ez. Berez hau nahiko kasualitatez irten den zerbait da. Iaz burdindegian batean erosi genituen igelaren jokuko piezak, eta koinatuarekin antolatu nuen. Toka ere erraza da lortzeko eta egiteko. Beste joku batzuk gaitzagoak dira lortzeko, laiekin lasterketak egitea, adibidez. Horretarako laiak behar dira. Hala ere, pote batzuekin eta soka batzuekin egin daiteke. Gupil bat burdina batekin ere eroaten zuten lehen... Orain krisiarekin agian horrelako joku sinple eta merkeek arrakasta eduki dezakete.

## Xumeak izan arren, jendea erakartzen duten jokoak dira?

Iaz oso eguraldi txarra egin zuen, eta elizpean, nahiko leku apartean kokatu ginen, eta, hala ere, jolastu egin genuen. Ez zuen jende asko parte hartu, baina girotxoa sortu zen, apustu txikiak-eta egin ziren.

## Urriko jaietan, toka antolatzen bai, baina argazkiak ateratzen ere ibiliko zara.

Herrian ekintzak daudenean beti ibiltzen naiz argazkiak ateratzen. Joaten naizen lekuetara kamara eroatea gustatzen zait.

## Argazkiak ateratzeko zelako ekintzak gustatzen zaizkizu?

Festak, azokak, dantzarien saioak, azken urteetan duatloia ere bai... Bi urtean argazki lehian ere egin da Mallabian, eta parte hartu dut. Batez ere, jendeak prestatzen dituen ekintzak gustatzen zaizkit. Kuadrilak-eta juergan animatzen dira, eta eskatzen didate argazkiak ateratzeko.

## Argazki zaharrak ere batzen dituzu.

Bai. Drogeteniturrri aldizkariak orain dela zazpi-zortzi urte proposatu nien argazki zaharren atala berreskuratzea, eta orain hilabetero argazki bat jartzen dut. Lan apur bat bada; jendearekin egon behar duzu argazkiak eta informazioa batzeko. Batez ere, jendea agertzen den argazkietan da garrantzitsua nortzuk agertzen diren jakitea. Informazio hori batu ezean, galdu egiten da. Argazkiekin batera anekdota ugari kontatzen dizkidate.

## Eskean ibiltzen zara, edo zugana jotzen dute argazkiak emateko?

Batzuei agian lotsa ematen die, pentsatzen dute euren argazkiak ez direla politak edo ez daukatela baliorik. Beste batzuk bai, etortzen dira. Gaur bertan emakume batek esan dit antzinako argazkiak dauzkala, San Kristobalera joan ziren batekoak. Pentsatzen dut jendeari, orokorrean, argazki zaharren kontua gustatu egiten zaiola, batez ere, herriko jendea agertzen denean. Askotan ez da erraza. Orain 85 pertsonarekin osatutako argazki bat daukat, eta horrelakoetan, jende askogaz egon behar duzu a h a l i k eta i n f o r m a z i o gehien edukitzeko.



## LAUHORTZA

JON ARTZA

Soziologia



## Etxebizitza Politika, Qr Kodeak, Pepe Gotera...

Zer zerikusi dute izenburuko kontzeptu horiek? QR kodeak, eta, oro har, teknologia berriak hain ondo menderatzen dituzten gazteek, nekez ezagutuko dituzte Pepe Gotera eta Otilio. Aldiz, komiki haiek irakurtzen genituen garaian, Internet, QR eta horrelakorik ez zen aurreikusten. Nik usate Bakterio doktoreak ere ez zuela horrelakorik asmatzen jakin.

Kontua da, Durangoko kaleetan hainbat kartel edo afixa ikus daitezkeela. Kanpoalde berde baten erdian QR kodea, hori besterik ez. Aipatu kodeak jais-teko aplikazio bat erabiliz, telefono mugikorrarekin argazkia atera eta bideo bat ikus daiteke. Bertan Pepe Gotera eta Otilioek EAJk daraman etxebizitza politika salatzen dute: udalak, orain dela 10 urte hiru etxebizitza erosi zituen eta oraindik hornitu eta esleitu gabe dauzka, dagoen etxebizitza premia larriarekin.

Irakurleak esango du ea zertara datorren Pepe Gotera eta Otilioren aipua. Azalduko dut: duela hilabete batzuk, zenbait gaztek, trenbide zaharrak Durango oraindik bitan zatitzen zuela salatzeke protesta ekintza bat burutu zuten. Trenbideko harresiak hautsi eta Kafe Antzoki parean bidea zabaldu zuten. Herriko alkatesak –gure belaunaldikoa berau– ekintza hura barrugarri utzi asmoz, Pepe Gotera eta Otilioren lanak zirela esan zuen. Egun, bat ez, trenbide zaharrean zehar hiru bide ireki dituzte. Badakit Pepe Gotera eta Otilioek etxebizitza-politika eredu ez dutela aldatuko, baina ez dago ezer aldatzerik parte hartze zuzenik gabe.

**Jaietan ere, euskaraz hobe**



URRIAK 18 (barikua)  
**AIKO ERROMERIA**  
Gukako karpan, 20:00etan